

2025EKO ABENDUAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Laua

HILABETEA: Abendua.

URTEA: Bi mila eta hogeita bost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Garazi Urkiola interpretariak.

1.- AURREKO AKTAK. 2025-10-30ko aktaren onespena.

Aktaren berri eman ostean, ondorengo zuzenketak egitea eskatu da:

Socialistas Vascos-Euskal Sozialista udal talde-bozeramailearen aldetik:

- Kendu egin behar da bilerara zinegotzi bat etorri ez zenik, zinegotzi guztiak bileran parte hartu zutelako.
- Ordenantza fiskalen puntuan, O2 esaten duen tokian, CO2, esan behar du.

Beasaingo EH Bilduren udal talde-bozeramailearen aldetik:

- Ordenantza fiskalen puntuan eta zehazki etxebizitzetara errekargua ezartzeari aipatzen denean, "Legeak aurreikusten duen %50ekoa", esaten duen tokian, "Legeak aurreikusten duen %150ekoa", esan behar du.

Aldaketa horiek eginda, aho batez onartu da 2025-10-30eko akta.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- UDALAREN 'UDALHITZ' HITZARMENA EGOKITZEA. 2025PEBO0179

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena, hau da:

"Gaia:Udalaren 'Udalhitz' hitzarmena egokitzeke proposamena.

AURREKARIAK

Udal honetako funtzionarioen lan baldintzak erregulatzen dituen Akordioa (UDALHITZ) Udalbatzak onartu zuen 2008ko urriaren 30ean. Ordutik hona hainbat egokitzapen izan ditu eta horiek gauzatzeko beharrezkoa da langile Batzordean dagokion akordioa aurrez hartzea.

2025ko azaroaren 10ean Langile Batzordearekin egindako bileran adostu zen ordezkariak sindikalariekin, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 14. xedapen gehigarriak bide ematen duen oporretako, gehienez ere lau, egun gehigarriak Beasaingo Udalean aplikatzea. Ondorioz 'Udalhitz' hitzarmeneko oporren artikulua egokitzea, zehazki 28. artikulua, oporren iraupenari dagokiona, jada dauden bi puntuei hirugarren bat gehituz.

Langile Batzordearekin adostu zen, 28. artikuluan jasotzen diren oporrez gain, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 14. xedapen gehigarriak jasotzen dituen gehienez ere lau, egun gehigarriak Beasaingo Udalean aplikatzea eta honela finkatzea:

- 1. opor egun gehigarria -> 3. hirurtekoa*
- 2. opor egun gehigarria -> 4. hirurtekoa*
- 3. opor egun gehigarria -> 5. hirurtekoa*
- 4. opor egun gehigarria -> 7. Hirurtekoa*

Aurrekariak ikusita, honako hau erabaki du, Antolakuntza Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egitea.

Lehenengoa.- Udal honetako funtzionarioen lan baldintzak erregulatzen dituen UDALHITZ Akordioaren (indarrean dagoena) testuko 28. Artikuluari hirugarren atala gehitzea, eta honela egongo da idatzita:

III. Kapitulua. OPORRALDIA ETA BAIMENEGUNAK

28 artikulua.- Iraupena

3. Lehenengo atalean aitortutako opor egunez gain, Beasaingo Udaleko langile publikoek emandako zerbitzu-denboraren arabera, gehienez ere lau opor egun gehigarri hartu ahal izango dituzte, zehazki: hirugarren antzintasun hirurtekoagatik egun bat gehiago, laugarren hirurtekoagatik bigarren eguna, bosgarren antzintasun-hirurtekoagatik hirugarren eguna eta zazpigarren antzintasun hirurtekoagatik laugarren antzintasun egun bat gehiago.

Bigarrena.- Akordioa 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Hirugarrena.- Jakinaraztea akordio hau 'Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean' eta behar duen publikitatea ematea akordioari."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- UDAL PRODUKTU, ARTIKULU ETA ARGITALPENEN SALMENTAREN ORDENANTZA ARAUTZAILEA ETA ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZARI AURKAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA ETA ANTZIZAR KIROLDEGIAREN INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK, BERTAN EMATEN DIREN ZERBITZUAK ETA ARETOEN ALOKAIUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIOAK ALDATZEKO AKORDIOAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOA.
2025APTF0001

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena, hau da:

"GAIA: Udal produktu, artikulua eta argitalpenen salmentaren ordenantza arautzailea eta ordaindu beharreko prezio publikoak onartzearen aurkako berraztertze errekurtsua eta Antzizar Kiroldegiaaren instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak, bertan ematen diren zerbitzuak eta aretoen alokairuagatik ordaindu beharreko prezioak aldatzeko akordioaren aurkako erreklamazioa.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Udalbatzak, 2025eko urriaren 30ean egindako osoko bilkuran, legezko quorumarekin erabaki zuen udal-produktu, -artikulu eta -argitalpenen salmentaren Ordenantza arautzailea eta prezio publikoak onartzea eta Antzizar Kiroldegiko instalazioak erabiltzeagatik, bertan ematen diren zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak eta gelak alokatzeagatik ordaindu behar diren prezioak aldatzea.

Bigarrena.- Udal produktu, artikulua eta argitalpenen salmentaren ordenantza arautzailea eta ordaindu beharreko prezio publikoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri ziren indarrean (2025eko azaroaren 6ko GAO, 213. zk.).

Bestalde, Antzizar Kiroldegiaaren instalazioak erabiltzeagatik, bertan ematen diren zerbitzuengatik eta aretoak alokatzeagatik ordaindu beharreko prezioengatik eska daitezkeen prezio publikoak aldatzeko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2025eko azaroaren 11ean (GAO, 216. zk.), eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko da indarrean.

Hirugarrena.- 2025eko azaroaren 7an, Ángel José Cervantes Martín jaunak berraztertze errekurtsua aurkeztu zuen udalaren produktuak, artikulua eta argitalpenak saltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoen eta ordenantza arautzailearen aurka, arrazoitze-akatsak, berdintasun-printzipioaren eta gaitasun ekonomikoaren urraketa eta justifikazio tekniko-ekonomikorik eza alegatuta.

Ondoren, 2025eko azaroaren 12an, erreklamazioa jarri zuen Antzitzar Kiroldegiaren instalazioak erabiltzeagatik, bertan ematen diren zerbitzuengatik eta aretoak alokatzeagatik ordaindu beharreko prezioengatik eska daitezkeen prezio publikoak aldatzeko erabakiaren aurka. Honako hauek argudiatu zituen: motibazio-akatsak, berdintasunaren eta gaitasun ekonomikoaren printzipioaren urraketa, motibazio eta justifikazio tekniko-ekonomikorik eza, gardentasun-araudiaren arabera argitalpen osoa eta elebiduna ez egitea, eta jendaurrean jartzeko eta behin betiko onartu aurretik alegazioak aurkezteko izapiderik ez izatea.

Laugarrena.- Espedientean jasota dago Arlo Ekonomikoko teknikariak 2025eko azaroaren 25ean egindako txostena.

APLIKAGARRI DEN ARAUDIA

- 1.- Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testuategia onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 41. eta 47. artikulua.
- 2.- Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43. artikulutik 50. artikulura bitartekoak.
- 3.- Tasa eta Prezio Publikoei buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legearen 26. artikulua.
- 4.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4., 112., 116. eta 131. artikulua.

PROPOSAMENA

Antolakuntza Batzordeak Udalaren Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

- 1.- Udalaren produktuak, artikulua eta argitalpenak saltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoen onarpenaren aurka jarritako berraztertze errekurtsa **izapidetzeko ez onartzea**, xedapen orokorra delako eta errekurtsogileak ez duelako hura jartzeko legitimaziorik.
- 2.- Antzizar Kiroldegiaren instalazioak erabiltzeagatik, bertan ematen diren zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publiko eta gelak alokatzeagatik ordaindu beharreko prezioen aurka aurkeztutako erreklamazioa **izapidetzeko ez onartzea**, erreklamazioak ez duelako hori aurkezteko legitimaziorik.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIA. HASIERAKO ONESPENA. 2025BIBO0011

Ezagutera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“Gaia: Etxez etxeko laguntza zerbitzuko udal araudiaren aldaketa

AURREKARIAK

- 1.- 2025-09-12an Alkateak emandako Probidentziaren arabera eta Administrazio Publikoetako Administrazio-prozedura erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua dioena betez, “Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Udal Araudia” onartu nahi den araudiari buruzko kontsulta publikoa egin da Udalaren Web orriaren bitartez, arauak eragina izan dezaketen pertsona eta eragile esanguratsuenen iritzia jasotzeko.
- 2.- Kontsultaren argitaratze data, ondorengo izan da: 2025-10-23tik Parte-hartze prozesua irekia egon da, 2025-11-12 arte.
- 3.- Epealdi horretan ez da iradokizunik ezta ekarpenik ere aurkeztu.

LEGERI APLIKAGARRIA

Apirilaren 2ko 7/1985, Toki Araubidearen Oinarriak onartzen dituen Legearen 49. artikulua, jarraitu beharreko prozedurari buruz.

Apirilaren 2ko 7/1985, Toki Araubidearen Oinarriak onartzen dituen Legearen 22.2d) artikulua, onartzeko eskumena duen organoari buruz.

Horren ondorioz, Herritarrek Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. *Eransten den Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko Udal Araudiaren aldaketari hasierako onespena ematea. Indarrean dagoen araudiarekiko aldaketa nabarmenenak hauek dira:*

-Zerbitzuak eskaintzen dituen prestazioak zabaltzea (5-6.art).

-Zerbitzuaren gutxieneko intentsitatea aldatzea (8.2. art.).

-Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa aldatzea (15. art.).

-Laguntza beharraren baremoa aldatzea (I. eranskina).

- Per capita errentaren baremo ekonomikoa zehaztea (I. eranskina).

-Pertsona erabiltzaileen ahalmen ekonomikoaren aldaketa (II. eranskina).

-Tasa eta ekarpen taula zehaztea.(III. eranskina)

Bigarren. *Informazio publikoan jartzea 30 eguneko epean, erreklamazio eta alegazioak aurkezteko, iragarkia GAOn, Udalaren web-orrian eta gardentasun-atarian argitaratuz.*

Bat ere aurkezten ez bada, ordenantza behin betiko onartutzat joko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ez dute ezer adierazi.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da.

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde

Aurkako botoak. 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko Udal Araudiaren aldaketari hasierako onespena eman zaio:

“ARRAZOIEN AZALPENA

2019ko otsailaren 28ko bilkuran Udalbatza Osoak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal arautegia onartu zuen. Arautegiaren testu osoa 2019ko maiatzaren 15eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari garrantzi estrategikoa duen zerbitzua da, elkarbizitzarako sostengua ematen baitio gizartean eta familian. Izan ere, sostengu hori ezinbestekoa da pertsona askoren bizi-kalitateko eta lan-bizitza eta familia uztartzeko, emakumeen kasuan bereziki. Erabiltzaileek eta beren inguruak, familiak zein auzokideek aintzat hartzen duten zerbitzua da, eta pertsona askoren bizi-kalitatea bermatzen du (adinekoak, mendetasun egoeran dauden pertsonak, familiaren zama handia duten pertsonak).

Pertsonen beren mendetasun mailakatuari laguntzeko zerbitzuak nola eman pentsatu eta zehazteko, lehentasunezkoa da pertsona horiek ahalik eta denbora gehien beren etxean geratzeko nahia kontuan hartzea, bizitza osoan zehar izan duten erreferentziazko sare soziala mantenduz.

Etxez etxeko laguntzen eskaera gero eta anitzagoak eta espezifikoagoak direnez, beharrezkoa da egungo udal-araudia egokitzea, etxeko laguntza-zerbitzuaren hartzaileek dituzten beharrian aldakorrei erantzun egokia eta egokitua eman ahal izateko.

Erregelamendu honek erraztu egiten du eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa, sartzeko baldintzak NISAE bitartekaritza-plataformaren bidez egiaztatuko baitira. Era berean, per capita errenta izeneko laguntza-premiaren eta egoera ekonomikoaren baremoa aldatzen du (I. eranskina), erabiltzaileen gaitasun ekonomikoari buruzkoa argitu eta zehazten du (II. eranskina), baita ekarpenen tasa eta taulari buruzkoa ere (III. eranskina); etxeko laguntza-zerbitzuan bertan jarduketa berriak sartzen ditu eta langileei dagokienez, etxean sartzeko gutxieneko prestazio-denbora egokitzen du.

LEHEN TITULUA

1. artikulua. Xedea

Arautegi honen xedea da Beasaingo udalerriko etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Arautegi honek arautzen duen zerbitzua Beasaingo udalerrian emango da, udalak gizarte zerbitzuen esparruan dituen eskumenen baitan.

3. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua asistentzia eta prebentzio zerbitzu bat da, erabiltzaileei ahal bezain luzaro norberaren etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ematean datzana; horretarako, etxeko laguntza edo/eta laguntza pertsonala eskaintzen zaie, etxean moldatzeko eta beren komunitatean txertatzeko, bakartzea saihestuz.

4. artikulua. Etxez etxeko zerbitzuaren helburuak

Zerbitzuak helburu hauek ditu:

- a) Autonomia galerari aurrea hartzea, autonomiari eustea edo/eta autonomia galera konpentsatzea. Horretarako, laguntza partziala edo/eta erabatekoa emango da norberaren zaintzarako eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko edo/eta eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletarako.
- b) Erabiltzaileen segurtasun sentipena indartzea.
- c) Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska lezaketen beharrianak antzematea.
- d) Erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezen bultzatzea eta bakartze edo/eta bazterketa egoerak saihestea.
- e) Norberaren etxean ahalik eta luzaroen eta bizi kalitate egokiarekin bizi daitezen ahalbidetzea, ahal den heinean; horrela, atzeratu edo saihestu egingo da ostatu zerbitzuetan edo egoitzetan sartu beharra.
- f) Erabiltzaileari laguntzen dion familia-gizarte sareko zaintzaileei laguntzea, eta zaintzari loturik dituzten eginbeharrak neurri batean arintzea, baldintza egokiak izan ditzaten beren garapen pertsonal, profesional eta sozialerako.
- g) Oro har, erabiltzaileaz arduratzen den zaintzaile nagusiaren ordezkari jardutea, tarteka, hura falta denean.
- h) Adingabeen zaintzan laguntzea, haien guraso edo tutoreek zaintza egokia ematerik ez dutenean
- i) Hainbat faktore psiko-fisiko-sozialen ondorioz krisi egoeran dauden familien bizikidetzaren giroa hobetzea eta faktore horietatik eratorri ohi diren arriskuei aurrea hartzea.

BIGARREN TITULUA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I.KAPITULUA – ZERBITZUAREN BAITAKO ETA ZERBITZUAZ KANPOKO PRESTAZIOAK, ALDAERA ETA EZAUGARRIAK

5. artikulua. Zerbitzuaren baitako prestazioak

5.1. Informazioa: Erabiltzaileei beren eskubideei eta zerbitzuari buruzko informazio egokia eta nahikoa eskuratzeko aukera ematea, behar den denboraz eta behar den moduan.

5.2. Jarraipenaren balioespena: Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldian aldiko ebaluazioak egitea, kasuan-kasuan dagokion sakontasunaz.

5.3. Etxeko laguntza: Erabiltzaileei eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa. Laguntza hori bereziki dagokie elikadurari, jantziei eta erabiltzailea bizi den etxeko instalazioen mantentze garbiketari, ongi antolatzen laguntzeko; prestazio honetan sartzen da, halaber, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.

5.3.1. ELIKADURAREKIN loturikoak

- Otorduak antolatzea eta prestatzea.
- Janaria erostea
- Erabilitako ontziak eta tresnak jasotzea, garbitzea eta lehortzea

5.3.2. JANTZIEKIN loturikoak

- Arropa etxean garbitzea
- Arropa zintzilikatu eta jasotzea
- Arropa antolatzea eta gordetzea
- Arropa lisatzea eta tolestea
- Arropa erostea
- Erabili beharreko elementu guztiak prestatzea eta jasotzea

5.3.3. ETXEKO MANTENTZEAREKIN loturikoak

- Etxea txukuntzea
- Etxeko gelak garbitzea
- Hautsa kentzea
- Etxea aireztatzea
- Garbiketa orokorrak (gortinak, azulejuak, lanparak...) urtean behin
- Zaborra zaintzea eta ateratzea
- Zerbitzua hasi aurretiko garbiketa orokorra
- Jabekideen erkidegoko espazioak garbitzea
- Ohea egitea eta oheko arropa aldatu eta arropa zikina kentzea

5.4. Laguntza PERTSONALA: Erabiltzaileei honako jarduera hauek egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa: a) zaintza pertsonalarekin loturiko eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, batetik bestera joatea, jatea edo oinarritzko beste funtzio batzuk; b)

ingurunearekiko lotura ahalbidetzen duten jarduera instrumentalak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea...) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak. Barne sartzen da, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.

5.4.1. Zaintza pertsonalarekin loturiko beharrezko eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, jatea edo oinarrizko beste funtzio batzuk.

5.4.1.1. MUGIKORTASUNAREKIN ETA INGURUNEAN MOLDATZEAREKIN loturikoak:

- Altxatzeko, oheratzeko edo jaikitze laguntza, lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.
- Etxean nahiz etxetik kanpo batetik bestera mugitzeko laguntza (komunera, gela batetik bestera, eskolara, garraiora, eguneko zentroetara, osasun etxeetara.... joateko laguntza), lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.

5.4.1.2. GARBITASUN PERTSONALAREKIN loturikoak:

Garbiketa eta higiene pertsonala (lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego; azazkalak moztea, bizarra egitea, ilea garbitzea, azala hidratatzea eta arropak aldatzea).

5.4.1.3. JATEAREKIN loturikoak:

- Jateko laguntza
- Edateko laguntza
- Janaria berotzea
- Erabilitako tresnak eta ontziak garbitzea eta jasotzea

5.4.1.4. JANTZIEKIN loturikoak:

- Janzteko eta eranzteko laguntza
- Eguneroko arropa prestatzea eta gainbegiratzea

5.4.2. Jarduera instrumentalak, ingurunearekiko lotura ahalbidetzen dutenak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea edo gutunak idaztea) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak.

Oro har, aurreko egitekoekin lotura duten aurretiko jarduerak, egiteko horiek gauzatzeko elementuak prestatzea edo/eta haietatik eratorritako jarduerak.

Bereziki, hala badagokio, edozein eginkizunetarako beharrezko trebetasunen lanketa.

5.4.2.1. Komunitatearekiko harremanarekin loturikoak:

Hurtzaindegi, ikastetxe, garraio, eguneko zentro, osasun etxe, komunitate-ekipamendu eta abarretara iristen laguntzea.

5.4.2.2. Ingurunearekiko komunikazioarekin loturikoak:

- Eskariak egiteko, gutunak jasotzeko, gutunen eta abarren edukia ulertzeko laguntza, etxean.
- Komunikazioa erraztea banketxeekin, osasun etxeekin...; errekursoak izapidetzea; dokumentazioa eskatzea eta entregatzea, etab.

5.4.2.3. OSASUNAREKIN loturikoak:

- Medikuzko zerbitzuak agindutako botikak (ahotik hartzekoak) erostea, kontrolatzea eta behar bezala hartzen diren gainbegiratzea.
- Medikuekiko hitzorduen kontrola eta jarraipena.

5.4.2.4. Zaintzarekin loturikoak:

Adingabeentzako zerbitzuetan, ingurune komunitarioan aritzeko laguntza eta adingabearen zaintza gauzatzean suertatzen diren bestelako egitekoak.

5.5. Gizarte laguntza: gizarte zerbitzuen berariazko zerbitzua, berezkoa, zeinaren bidez pertsonak aukera duten profesional kualifikatu batekin beren kasa hobeto moldatzeko eta gizarteratzeko laguntza harreman batean parte hartzeko.

Erabiltzaileari aukera ematen dio bere egoera aztertzeko, bere autonomia eta gizarteratze maila mantentzeko edo hura garatzeko buruz zer helburu dituen zehazteko eta helburu horiek betetzeko erreferentziazko pertsona bat edukitzeko, zeinaren bidez ondorengo laguntza hauek jasoko dituen prozesuan zehar:

- instrumentala (baliabide eta beste sistema batzuetako zerbitzuetara nahiz laguntzako gizarte/familia sareetara –familia, lagunak, komunitatea– harreman sareetara iristeko informazioa, orientazioa eta bitartekaritza).
- emozionala (kaltea murriztea, sostengua, babes emozionala eta orientazioa krisi egoeretan ...).
- hezkuntzako (eguneroko bizitzako eta gizarteratzea sustatzeko oinarritzko jarduerak, jardura instrumentalak nahiz jardura aurreratuak egiteko trebetasunak hartzea, jokabideak aldatzea ...).
- harremanei loturikoa (entzute aktiboa, gizarte harremanak edo/eta harreman pertsonalak egiteko edo mantentzeko trebetasunak hartzea, harremanak egiteko aukerak sortzea).

Gizarte laguntzaren intentsitatea aldatu egin daiteke pertsonaren beharrianen arabera. Horrela, erabiltzailearen laguntza beharrianaren intentsitatea aldatzea ahalbidetuko duten ibilbideak planteatu litezke (betiere, kontuan harturik intentsitatea murriztea dela desiragarria).

5.6. Beste jardura OSAGARRIAK:

- Paseoak egiten laguntzea.
- Konpainia etxean.
- Higiene arazo larriak dituzten etxeetako garbiketa orokorra.
- Higiene eta osasungarritasun arazo larriak dituzten etxeak hustea eta garbitzea.

6. Artikulua. Zerbitzuaz kanpoko jarduerak:

Ondorengo jarduerak etxez etxeko laguntza zerbitzutik kanpokotzat jotzen dira:

- Etxebizitza berean bizi arren, udal zerbitzu teknikoek zerbitzuaren onuradun jotzen ez dituzten pertsonen laguntza pertsonala.
- Etxebizitza berean bizi arren, zerbitzuaren onuradun jotzen ez diren pertsonak zuzenean mesedetzen dituen etxeko laguntza.
- Prestakuntza espezifiko eskatzen duten osasun arloko jarduerak, hala nola, indizioak jartzea, insulina edo heparina ematea, tentsioa hartzea, zundak eta zarakarrak tratatzea, ezagutza espezifiko eskatzen duten botikak ematea eta horien antzerakoak.
- Etxean konponketa handiak egitea: margotzea, etab.

7. artikulua. Zerbitzuaren aldaera: atsedenerako zerbitzua

Atsedenerako zerbitzua zaintzaile nagusiarentzat; mendekotasun egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dagoen pertsona aldi batez EELZn sartuz edo zerbitzu horretan ordura arte eskaintzen zen laguntzaren intentsitatea aldi batez areagotuz.

8. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak

Etxez etxeko laguntza zerbitzua onuradunak lo egiten duen edo/eta eguna igarotzen duen tokian emango da, Beasaingo udalerrian.

Onuradun den pertsona familia artean ibil daitekeela kontuan hartuta, zerbitzua etxebizitza batean edo gehiagotan eman ahal izango da, beti ere, etxebizitza horiek Beasaingo udalerrian edo udalerri mugakide (Lazkao, Olaberria eta Ordizia) barnean baldin badaude, beti ere pertsona onuraduna Beasainen erroldatuta badago.

Era berean, etxez etxeko laguntza zerbitzua adinekoentzako udal ostatu zerbitzuan emango da.

1) Laguntza emateko egunak

Oro har, urteko egun guztietan emango da zerbitzua (abenduaren 24 eta 31an salbuespena jartzeko aukera).

1) Zerbitzuaren intentsitatea

Zerbitzuaren denbora mugak erabiltzaileen beharrianen banakako ebaluazioaren arabera zehaztuko dira. Gehienez ere, asteko hogeita zortzi orduko laguntza emango da.

Gutxieneko zerbitzua asteko ordu 1ekoa izango da.

Gehienez ere, asteko 28 orduko laguntza emango da. Asteko gehieneko hori 42 ordukoa ere izatera hel daiteke gehienez hilabete batean, pertsonaren laguntza arloko jarduerak behar izan eta familiaren edota gizartearen laguntzarik ez duten eta beren egoera beren osotasunerako eta hirugarrenen segurtasunerako arriskutsua izan dezaketen pertsonei.

Sarrera bakoitzean zerbitzuak gutxienez 30 minutuko iraupena izango du.

2) Laguntzaren ordutegiak

Zerbitzuaren ordutegia malgua da; nagusiki, 07:00etatik 22:00etarako ordutegiaren barruan emango da.

Nolanahi ere, zerbitzuaren ordutegia zabaldu egin ahal izango da, balioespen teknikoaren arabera, muga batzuen barruan.

- Laguntza pertsonalari dagokionez, udal teknikariek zehaztuko dute ordutegia, laguntza eskatzailearen ohiko ordutegiak eta beharrianak kontuan hartuta.

II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK

9. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea

Oro har, ondorengo profila izango dute zerbitzu honen erabiltzaileak: autonomia galeraren edo ahultasun egoeraren ondorioz, norberaren etxebizitzan bizitzen jarraitu ahal izateko eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko laguntza –aldi batekoa nahiz iraunkorra– behar duten pertsonak edo/eta familiak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorrotzko 185/2015 Dekretuak ezartzen duenari jarraituz, mendekotasun egoeran edo mendekotasuna jasateko arriskuan dauden pertsonei zuzendutako zerbitzua da etxez etxeko laguntza zerbitzua.

Honako pertsona edo/eta familia hauek ere izan daitezke etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak:

Beren kasa moldatzeko zailtasunak direla medio eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak edo/eta jarduera instrumentalak gauzatzeko laguntza behar duten pertsonak.

Familiak zaindu ezin dituzten edo behar duten zaintza eta arreta eman ezin dieten adingabeak.

Zama astunegia, harreman gatazkatsuak, gizarte egoera egongaitzak edo/eta gaixotasun fisiko edo/eta psikikoen ondoriozko arazoak dituzten familiak edo pertsonak, eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza partziala edo erabatekoa behar dutenak.

Aldi bateko gaixotasun edo gaixotasun terminal batek jotako pertsonak, gaixotasunaren ondorioz eguneroko bizitzako jardueretarako beste norbaiten laguntza behar dutenak.

Kasuaren arduradunaren iritziz eta haren irizpideei jarraituz zerbitzu honen arreta jasotzea dagokien pertsona edo/eta egoerak, Gizarte Ongizate azpisaileko arduradunak baimenduak.

Eskaria talde batek eginez gero, taldeko kide guztiek bete beharko dituzte zerbitzuan sartzeko baldintzak.

Zerbitzuaren titular bat izendatuko da, onuradun guztiak ordezkatzeko; titularra hil eginez gero, egoitza zentro batean sartuz gero edo bizitokia aldatuz gero, bizikidetza unitateko beste onuradun batek hartuko du titulartasuna.

Titulartasuna aldatzean, berriro ebaluatuko dira beharrianak, gizarte-familia egoera eta egoera ekonomikoa.

10. artikulua. Zerbitzuan sartzeko baldintzak

Aurrez aipatutako talde horietako bateko kidea izateaz gainera, honako baldintza hauek bete beharko ditu eskatzaileak:

10.1. Baldintza administratiboak:

Eskaria egiten den datan Beasaingo udalerrian erroldatuta egotea, eta hartan erroldatuta jarraitzea. Teknikariek hala proposatuz gero, baldintza hau betetzetik salbuetsita geldituko dira senitartekoen etxeetan txandaka bizi diren pertsonak.

10.2. Beharrianari buruzko baldintzak:

Dagokion etxebizitzan bizitzea, izan hura norberarena nahiz zaintzaile nagusi gisa diharduen senitarteko batena.

Etxebizitzaren edo ingurunearen egoerak ez eragozte eta zailtzea erabiltzailea han egotea eta ez jartzea arriskuan erabiltzailea nahiz etxez etxeko langileak.

Hala behar izanez gero, etxebizitzan baldintza egokietan bizitzeko behar adina laguntza izatea, EELZren prestazioarekin batera.

Osasun edo gizarte-osasun erakundeetan iraunkorki arreta jasotzea eskatzen duen osasun egoeran ez egotea .

Gaixotasun infekzio-kutsakor edo buru gaixotasun bat izanez gero, uko ez egitea dagokion tratamendua hartzeari.

Jokabide asaldurarik izanez gero, etxez etxeko langileentzako arriskutsua ez izatea.

11. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikulua arabera, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak dira:

EAEko hizkuntza ofizialetatik edozeinetan zerbitzua jasotzea, ahal den neurrian.

Zerbitzu ematea eta haren intentsitatea aldatzeko eskaria egitea.

Zerbitzuaren baldintzen aldaketan berri aldez aurretik jasotzea.

12. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaz gainera, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak behartuta egongo dira:

Zerbitzuan parte hartzen duten profesionalen lana erraztera, haiek laguntzera eta zuzen eta errespetuz tratatzera.

Egoera sozio-ekonomikoa balioesteko beharrezko dokumentuak gizarte langileari ematera eta balioespena nahiz jarraipeneko bisitak egiteko etxean sartzen uztera.

Zerbitzua jaso bitartean gaixotasun infekto-kutsakor bat harrapatuz gero, udal teknikariei horren berri ematera, etxez etxeko laguntzaileek hartu beharreko babes neurriak hartu ahal izan ditzaten.

Osasun egoerak hala eskatuz gero, behar den orotan joatea osasun erakundeetara.

Aurrez hitzartu gabeko inolako prestaziorik ez eskatzera, eta ez eskatzera, halaber, udal ebazpenak barne hartzen ez dituen pertsonentzako arreta.

Etxez etxeko zerbitzuko langileak zerbitzua ematen ari diren bitartean etxean egotera, bestelako berariazko baimenik eta agindu teknikorik ez.

Zerbitzua etetea dakarten lekualdatzeen berri aldeztatik ematera.

Udal teknikariei behar adinako aurrerapenaz jakinaraztera eskaintzen den zerbitzua ematean inolako aldaketarik eragin lezaketean bat-bateko gorabehera pertsonalak.

Etxez etxeko langileen esku uztera esleitutako etxeko lanak egiteko eta laguntza pertsonala emateko beharrezko tresnak eta materialak.

Etxez etxeko langileek beren egitekoak behar bezala ez betez gero udal zerbitzu teknikoei irregulartasun horien berri ematera.

- Emandako zerbitzu bakoitzari dagokion tasa dagokion epean ordaintzera.
- Azken zerbitzuaren hurrengo egunetik 7 egun edo gutxiago etxetik, borondatez edo ez, kanpo egotea dela medio, gauzatu gabe gelditutako zerbitzuengatik dagokion tasa ordaintzera.
- Udal zerbitzu teknikoei hilabeteko epean jakinaraztera bere egoera sozio-ekonomikoan gertatutako aldaketa adierazgarri oro.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari mendekotasunaren balioespena edo/eta ezgaitasunaren kalifikazioa egin dezan eskatzera.
- Betebehar horietakoren bat huts eginez gero, zerbitzua eteteko edo iraungitzeko prozedura abian jarriko da arautegi honetan araututako prozedurarekin bat etorrita.

III. KAPITULUA. ZERBITZUAN SARTZEKO PROZEDURA

1. ATALA. ESKATZAILEEN ZERRENDAN SARTZEA

13. artikulua.- Eskatzaileen zerrenda

Zerbitzuaren eskatzaileen zerrenda da zerbitzua esleitzeko lehentasuna antolatze baliatuko den tresna. Lehentasuna, zerbitzuan sartze buri I. eranskinean zehaztutako baremoa aplikatuz lorturiko puntuazioaren arabera finkatuko da.

14. artikulua.- Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaria

Arautegi honetan araututako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko, aldeztatik eskaria egin behar du interesdunak, inprimaki formalizatua erabiliz. Ondoren, organo eskumendunari helaraziko zaio inprimakia, eskatzaileak sinatuta. Udalak xede horretarako berariaz gaitutako erregistroetan edo Administrazio Publikoen Administrazio

Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan edo erregistroetan aurkeztu beharko da eskaria.

Interesdunak prozesuaren edozein unetan bertan behera utz dezake eskaria, idatziz. Hala eginez gero, artxibatu egingo da espedientea.

Era berean, gizarte langileak txostena egin ahal izango du espedientea artxibatzeko, baldin eta eskatzaileak edo haren ordezkariak hitzez adierazten badu eskaria bertan behera utzi nahi duela.

15. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

Eskaera orria behar den moduan beteta eta sinatuta.

Familia liburua edo baliokidea, baldin eta bizikidetza unitatean 18 urtetik beherako adingaberik badago.

Mendekotasun edo/eta ezgaitasunen balioespena, baldin eta beste autonomia erkidego batean egina bada eta espedientea oraindik Gipuzkoako Foru Aldundira aldatu gabe badago, udaleko gizarte zerbitzuek beharrezkoa dela iritziz gero.

Mediku txostena, udal gizarte zerbitzuek beharrezkoa dela iritziz gero.

- Zaintzaren onuraduna adingabea edo ezgaitasuna duen pertsona bat izanez gero, legez edo izatez, ordezkaritza egiaztapena.
- Udaleko gizarte zerbitzuek intereskotzat jotzen duten beste edozein dokumentazio.

16. artikulua. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatze eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak, eskatzailearen eta zerbitzuko pertsona onuradunen guztienak, honako hauek izango dira:

- a) Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: NA-AIZ, datuak eta egiaztapena.
- b) Gipuzkoako Foru Aldundia:
 - PFEZ
 - Kontuak
 - Ondasun higiezinak
 - Ondarea
- c) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala: Gizarte-prestazio publikoak.

4. Eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

5. Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe edo nahikoa ez dela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.

6. Eskatzaileak bere egoera ekonomikoa baloratua izatea nahi ez badu edo modu frogagarrian justifikatu ezean, bere egoera ekonomikoa kontuan hartzeari uko egiten diola ulertuko da; beraz, zerbitzua ordaintzeko ezarritako gehieneko tasa ordaindu beharko du, eta 0 puntu lortuko ditu bere egoera ekonomikoaren balorazioan, I. eranskineko V. atalean (Sarbide-baremoa) aurreikusten dena.

Datuak faltsutu eta ezkutatzuz gero, zerbitzuaren eskatzaile-izaera galduko da, egon litezkeen erantzukizunak baztertu gabe.

17. artikulua.- Izapidetzea

Erabiltzaileen beharrianen ebaluazioa eta gizarte txosten-proposamena egiteko, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean bildutako zehaztapenak hartuko dira kontuan.

A) BEHARRIZANEN EBALUAZIOA

Balioespena eta ebazpen proposamena udaleko gizarte zerbitzuetako gizarte langileak egingo du.

Gizarte langileak dokumentazioa aztertuko du eta elkarriketak, etxeko bisitak eta egoera bakoitzean zer beharrian dauden balioesteko egin beharreko izapide guztiak egingo ditu.

B) GIZARTE TXOSTEN-PROPOSAMENA

Gizarte langileak arauzko gizarte txosten bat egingo dute, honako alderdi hauei buruz:

- Zerbitzuan sartzeko baldintzak betetzea eta eskaria aurkeztea.
- Hala dagokionean, baldintzak betetzetik salbuesteko proposamen arrazoitua.
- Eskatzailearen eta, hala dagokionean, bizikidetzaren unitatearen egoera pertsonal, familiar eta sozialak.
- Esku-hartzearen onuradunak, emango den zerbitzu mota, asteko ordu kopurua eta egunak, proposatzen den zerbitzuak barne hartzen dituen egitekoak eta haren iraupena.
- Hala dagokionean, ezohiko zerbitzuak emateko proposamen arrazoitua.
- Eskatzaileak zerbitzua jasotzeko ordaindu beharreko orduko prezioa.
- Hala dagokionean, zerbitzua ukatzeko proposamen arrazoitua.

18. artikulua. Ebazpena

Eskaria aztertu eta balioespena egin ondoren, udaleko organo eskumendunari helaraziko zaio, hark ebazpen arrazoitua eman dezan; ebazpen horretan, eskatutako zerbitzuan sartzeari onetsi edo ezetsiko da.

Ebazpena emateko bi hilabeteko gehieneko epea dago eskaria udal erregistroren batean sartzen denetik kontatzen hasita. Epe hori eten egingo da eskarien akatsak zuzentzea eskatuz gero; jakinarazpena egiten denetik eskatutakoa betetzen denera bitartean iraungo du etenaldiak, edo, hala badagokio, emandako epea igarotzen denean, edo Gipuzkoako

Foru Aldundiari eskatzailearen autonomia balioesteko txostena eskatu behar zaionean, bestela, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako gainerako egoeretan ere.

Aurreko atalean aurreikusitako epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eta ebazpena emateko derrigortasunaren kalterik gabe, eskaria ezetsi dela ulertu ahal izango da, eta interesdunak aukera izango du aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa ezartzeko.

Ebazpen positiboa izanez gero, honako alderdi hauek adierazi behar ditu:

- Eskaria zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzea.

- Prestazioaren onespena, honako hauek zehaztuz: zerbitzuaren iraupena, mota, intentsitatea eta kostua, baita onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa ere.

Ebazpen negatiboa izanez gero, eskaria ezesteko arrazoiak azaldu beharko ditu, eta honako kasu hauetan izango da bidezkoa:

- Arautegi honetako 9. kapituluan zerbitzuan sartzeari buruz adierazitako baldintzak ez betetzea.
- Eskatzaileak, bere kasa edo/eta senitarteko edo/eta beste baliabide pertsonalen bidez behar bezala estali ahal izatea eskarian argudiatutako beharrak.
- Zerbitzua emateko eskumena beste administrazio publiko batena izatea, prestazio motagatik edo eskatzailearen bizitokia kokatuta dagoen tokiagatik.
- Zerbitzua emateak erabiltzaileari nahiz zerbitzua ematen duten langileei arrisku fisikoak edo/eta psikikoak ekar diezazkiokeela balioestea.
- Behar bezala argudiatutako beste arrazoi batzuk.

Ezespenezko ebazpena lege ezarritako epeetan eta formalitateak betez jakinarazi beharko da, eta aukerako berraztertze errekurtsoa ezarri ahal izango da haren kontra organo eskumendunaren aurrean, baita zuzenean haren aurka egin ere, administrazioarekiko auzien jurisdikzio ordenaren aurrean, lege ezarritako epe eta baldintzetan.

Onespenezko ebazpena denean, zerbitzua ematen duen erakundeari gizarte-txosten proposamena helaraziko zaio, 7 egun naturaleko epearen barruan zerbitzua gauzatzen hasteko.

19. artikulua. Premiazko egoerak

Aparteko izaeraz, premia larri edo muturreko premia duten kasuei erantzuteko, prestazioa berehala ematen hastea proposatuko dute udaleko gizarte zerbitzuek.

Udaleko gizarte zerbitzuek zerbitzua ematen duen erakundeari adieraziko diote zerbitzuaren premiazko izaera, eta jakinarazpena jasotzen duenetik 24 orduko epearen barruan zerbitzua gauzatzen hasiko da erakunde hori.

Gehienez ere 15 eguneko epean tramitatu beharko da eskaera, ohiko prozedurari jarraituz.

2. ATALA. ZERBITZUAREN ONESPENA ETA ZERBITZURAKO SARBIDEA.

20. artikulua. Zerbitzuaren onespena

I. eranskinean adierazitakoaren arabera jasoko da zerbitzuaren onespena

IV. KAPITULUA. ZERBITZUAREN EGOKITZAPENA ETA JARRAIPENA

21. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa

Gizarte langintzako teknikariek jarraipen iraunkorra egingo dute zerbitzuak onuradunen beharrekiko duen egokitasunari buruz; jarraipen horren bidez, dagozkien aldaketak proposatuko dituzte, eta proposatutako helburuak lortzen ari diren ebaluatuko dute onuradunekin lankidetzan. Jarraipena egiteko, egoki irizten zaionean onuradunaren etxera bisitak egitea eta aldian-aldian, zerbitzua ematen duen entitatea eta etxez etxeko laguntzaileekin harremana izatea aurreikusten da.

Aldizkako ebaluazioak egin ahal izango dira, onuradunak hala eskatuta, zerbitzua ematen duen erakundeak hala eskatuta nahiz protokolo eta kontratuetan ezarritako moduan.

22. artikulua. Egokitzapena

Zerbitzuan sartu ondorengo hiru hilabeteak erabiltzaileak zerbitzuaren ezaugarri eta funtzionamendura egokitzeko alditzat hartuko dira. Erabiltzailearen erreferentziazko gizarte langileak edo/eta zerbitzua kudeatzen duen enpresak etengabe izango dute harremana erabiltzailearekin, gorabeheraren bat sortuz gero egokitzapena lortzeko bilatu beharreko konponbideak bilatzeko.

Harekin batera irtenbideak bilatzen saiatu arren erabiltzailea zerbitzura edo zerbitzua erabiltzailera egokitzeko zailtasunak daudela edo zerbitzuak erabiltzailearen beharrak behar bezala estaltzen ez dituela ikusiz gero, udaleko gizarte zerbitzuek proposamen bat egingo dute, zerbitzuari dagozkion langile teknikoek edo/eta zerbitzua kudeatzen duen enpresak aurrez egindako txostena kontuan hartuta.

Proposamen hori erabiltzaileari helaraziko zaio, eta 15 eguneko tarte emango zaio alegazioak aurkezteko.

Udaleko gizarte zerbitzuek, alegazioak aztertu ondoren, behin betiko proposamena egingo diote organo eskumendunari, hark ebazpen arrazoitua eman dezan. Erabiltzailea zerbitzutik ateratzea ebatziz gero, beste bide bat eskainiko zaio, halakorik balego.

V. KAPITULUA. ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

23. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.

23.1. Zerbitzua aldi batez etetea

Dagokion espedientea bideratu ondoren, organo eskumendunak ebazpena eman eta udaleko gizarte zerbitzuek hala proposatuta, zerbitzua aldi batez etetea erabakiko da, interesdunak esateko duena entzun eta gero. Erabiltzaileari eta, hala dagokionean, zerbitzua ematen duen erakundeari emango zaie ebazpen horren berri, legeak ezarritako epe eta baldintzak beteta.

Arrazoi hauengatik etengo da etxez etxeko laguntza zerbitzua:

- 10. artikuluan erabiltzaileei ezarritako betebeharren batean huts eginez gero, hutsegite hori zerbitzua iraungitzeko arrazoia ez bada. Ofizioz abian jarriko da etena.
- 9. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat aldi baterako galduz gero. Ofizioz nahiz erabiltzaileak hala eskatuta abian jarriko da etena.
- Arrazoi hauek direla medio erabiltzailea etxean ez badago, honako egoera hauetan:
 1. Erabiltzailea erietxean ingresatzea.

2. Erabiltzailea gizarte-osasun baliabideetan sartzea.
3. Medikuariengana edo/eta tratamendua hartzera joan behar izatea.
4. Senitartekoen etxeetan txandaka bizi izatearen ondorioz beste etxebizitza batera joan behar izatea.
5. Oporraldia.

Etenaldia 3 hilabetekoa izango da, gehienez ere.

Profesionalen aburuz egokia izanez gero, luzatu egin ahal izango da epe hori.

Zerbitzua eteteko finkatutako epea igarota erabiltzailea etxera itzultzen ez bada, zerbitzua iraungi egingo da.

23.2. Zerbitzua iraungitzea

Dagokion espedientea bideratu ondoren, organo eskumendunak ebazpena eman eta udaleko gizarte zerbitzuek hala proposatuta, zerbitzuaren bajak zehaztuko dira, interesdunak esateko duena entzun eta gero. Onuradunari ebazpena jakinaraziko zaio eta horren berri zerbitzuaren emaileari emango zaio.

Arrazoi hauengatik iraungiko da etxetik etxeko laguntza zerbitzua:

- Erabiltzaileak uko egitea.
- Zerbitzua emateko aurreikusitako epea amaitzea.
- Erabiltzailearen heriotza.
- Erabiltzailea beste udalerri batera lekualdatzea, senitartekoen etxeetan txandaka bizi denean izan ezik.
- Erabiltzailea beste baliabide edo programa batean sartzea.
- Zerbitzua emateko arrazoia desagertzea.
- Zerbitzua emateko kontuan hartu beharreko datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
- Zerbitzuan sartzeko eskatutako baldintzaren bat betetzeari uztea.
- Zerbitzuaren jarraipenerako eskatutako dokumentazioa ez ematea.
- Egoera sozio-ekonomikoan aldaketaren bat gertatuz gero 30 eguneko epean horren berri ez ematea.
- Aldi baterako etenaren epea amaitutakoan etxebizitzara ez itzultzea.
- Zerbitzua ematen duten langileei eraso fisiko edo psikologikoa egitea.
- Arautegi honetan ezarritako erabiltzaileen betebeharrak behin eta berriz huts egitea.
- Bizikidetzaren unitateko kideen eta gizarte langilearen edo zerbitzua ematen duten langileen arteko lankidetzarik eza. Arrazoi hau argudiatzeko, alde aurreko balioespena egin behar dute gizarte zerbitzuek.

- Erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duten langileentzat arrisku fisikoak eta/edo psikikoak egotea. Arrazoi hau argudiatzeko, aldez aurreko balioespena egin behar dute gizarte zerbitzuek.

Zerbitzua iraungitzeko ebazpena jaso ondoren erabiltzaileak berriro zerbitzua jaso nahi izanez gero, beste eskari bat egin beharko du, eta arautegi honetan zehaztutako moduan izapidetuko da.

Zerbitzua iraungiz gero erabiltzaileak zerbitzuari dagokion ordainketaren bat egin gabe edukiz gero, berriro zerbitzua eman aurretik ordaintzea eskatuko zaio.

VI. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

24. artikulua. Tasa

Aurreko ataletan ezarritakoari jarraituz erabiltzaileak ordaindu beharreko etxez etxeko zerbitzuaren tasa, urtero onartuko den ordenantza fiskalaren arabera zehaztuko da.

25. artikulua. Finantzaketa

Zerbitzuak honela finantzatuko dira:

- Onuradunak zerbitzua finantzatzen parte hartu beharko du. Hain zuzen ere, bere gain hartu behar du bere ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta organo eskumendunak emandako ebazpenean ezarritako zenbateko. Nahitaezko betebeharra izango da zerbitzua ematen hasteko.
- Beasaingo udalak ordainduko du orduko prezioaren zenbatekoa, onuradunak ordaindu beharreko orduko ekarpena kenduta. Onuradunak ordaindu beharreko ekarpena 24. artikuluaaren, ahalmen ekonomikoaren (II. Eranskina) eta tasa eta ekarpen taularen (III. Eranskina) arabera kalkulatu da.

24. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena

Arautegi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileek zerbitzuaren kostuaren ehuneko bat ordaindu beharko dute; ehuneko hori kalkulatzeko, beren ahalmen ekonomikoa kontuan hartuko da, II. Eranskinak eta III. Eranskinaren arabera, urtero eguneratuko dena.

Zerbitzua hilerokobratuko da, hilabetea amaitzean.

Ahalmen ekonomikoari buruzko datuak faltsutu edo ezkutatu gero, artxibatu egingo da zerbitzua jasotzeko eskaria, edo, erabiltzailea aldez aurretik laguntza jasotzen ari bazen, iraungi egingo da zerbitzua, gertaera horietatik erator litezkeen erantzukizunen kalterik gabe. Udalak tasa ordaintzeko laguntzaren bat edo hobariren bat eman badiu erabiltzaileari, diru laguntzak banatzeari buruzko udal ordenantzan diru laguntzak itzultzeko araututako prozedura abian jarriko da.

Zerbitzuen erabiltzaileak eta, hala dagokionean, haien legezko ordezkariak behartuta daude familia unitatearen errentan, ondarean edo kideen kopuruan gertatutako aldaketak edo banakako ekarpenak zehaztean eragina izan dezakeen edozein gorabehera udalari jakinaraztera, 30 eguneko epean. Horren ondoriozko aldaketa ekonomikoek hurrengo hilabetean izango dute eragina.

Erabiltzaile bakoitzari dagokion banakako ekarpenak aldatzea eragin lezakeen aldaketaren bat gertatuz gero erabiltzailearen baldintzetan edo egoeran, ofizioz

berrikusiko da ekarpena, udal gizarte zerbitzuak edo erabiltzaileak nahiz haren ordezkariak hala eskatuta.

Erabiltzailea etxetik kanpo egoteagatik lehen 7 egunetan eskaini ez den zerbitzua, azken zerbitzuaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, jaso ez bada ere ordaindu egin beharko da.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren bidez, erabiltzaileek beren etxe eta ingurune komunitarioan jarraitzeari begirako esperientzia/jarduera/prestazio berri eta berritzaileak abian jarri ahal izango dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi hau indarrean sartu ondoren, etkez etxeko laguntza zerbitzuaren egungo onuradunei ere aplikatuko zaie.

XEDAPEN INDARGETZAILEA

Araudi hau indarrean sartzen denean, 2019-05-15ean GAO n argitaratutakoa indargabetu egingo da .

AMAIERAKO XEDAPENA

Arautegi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA

ZERBITZUAN SARTZEKO BAREMOA

Sartzeko baremoak eskatzaileen zerrenda ordenatzeko irizpideak eta diagnostiko sozialaren arabera zerbitzurako sarbidea izateko lehentasunak finkatzen ditu.

Zerbitzuan sartzeko baremoari dagokionean, eskatutako zerbitzuak pertsona bati baino gehiagori eragiten badie, laguntza beharrian handiena duen eskatzailearen egoera baino ez da aztertuko, egoera ekonomikoaren alderdiari dagokionez izan ezik; hain zuzen ere, egoera ekonomikoa zehazteko, bizikidetza unitateko kide guztien per capita errenta kontuan hartuko da.

BAREMOAREN EGITURA:

ALDERDIAK /	PUNTUAZIO TARTEAK
1. Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza beharra (Oinarrizko jarduerak)	0-30
2. Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza beharra (Jarduera instrumentalak)	0-10

3. Bizikidetza eta gizarte sostengua	0-20
4. Etxebizitza edo bizitokia	0-10
5. Egoera ekonomikoa	0-30
Guztira	0-100

I. EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRA (OINARRIZKO JARDUERAK)

Pertsonek beren autonomia maila mantentzeki eta sustatzeki eta beren ohiko ingurunean bizi kalitate onarekin bizitzen jarraitzeki begira eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretarako (jan, jantzi, norberaren garbitasuna...) behar duten laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea.

Balioespen horretarako, MBBn lortutako puntuazioa erabiliko da, jarraian adierazten den moduan:

Laguntza beharraren BAREMOA	Puntuak
Balioetsi ezinezkoak edo MBB 0-22 puntu	5
MBB 23-49	10
MBB 50-74	20
MBB 75-100	30
EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERETARAKO LAGUNTZA BEHARRAREN PUNTUAZIOA (OINARRIZKO JARDUERAK) (30 puntu gehienez)	

II. EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRA (JARDUERA INSTRUMENTALAK)

Pertsonek beren autonomia maila mantentzeki eta sustatzeki eta beren ohiko ingurunean bizi kalitate onarekin bizitzen jarraitzeki begira eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko (etxetresna elektrikoak erabili, erosketak egin...) behar duten laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea.

Baremo hau erabiliko da balioespena egiteko:

<i>Jarduera instrumentalaren BAREMOA</i>	<i>Puntuak</i>
--	----------------

Etzetresna elektrikoak (garbigailua, mikrouhin labea, sukaldea, berogailua...) eta interkomunikazioko sistemak (irratia, telefonoa, telebista) erabiltzea.	BAI: 0 EZ: 1
Etxeke lanak (hautsa kentzea, erratza pasatzea, ontziak garbitzea, ohea egitea, oheko arropa aldatzea, xurgagailua, lisatzea...).	BAI: 0 EZ: 1
Erosketak (elikagaiak, botikak, arropa, etzetresna elektrikoak...).	BAI: 0 EZ: 1
Jana prestatzea (otorduak prestatzea, prestatutako jana berotzea).	BAI: 0 EZ: 1
Ingurunean moldatzea (garraio publikoa erabiltzea, herrian egunez/gauez ongi orientatzea).	BAI: 0 EZ: 3
Izapide ekonomiko-administratiboak eta osasunekoak (dirua ateratzea, ordainagiriak moldatzea, medikuarenera joatea...).	BAI: 0 EZ: 3
EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERETARAKO LAGUNTZA BEHARRAREN PUNTUAZIOA (JARDUERA INSTRUMENTALAK) (10 puntu gehienez)	

III. BIZIKIDETZA ETA GIZARTE SOSTENGUA:

Pertsonak bere beharrianak betetzeko duen laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea, eta honako aldagai hauen arabera egiten da balioespena:

- Bizikidetza egoera: Bakarrik edo norbaitekin bizi den. Adineko beste bizikide batzuekin (senitarteko edo lagunekin) edo bestelako senitarteko edo lagunekin bizi den.
- Sare informalik baduen ala ez, eta, edukiz gero, sare horretaz baliatzeko dituen aukerak (senitarteko edo/eta lagunak), eta sare horrek zer laguntza mota ematen dituen.

Baremo hau erabiliko da balioespena egiteko:

Gizarte-familiaren BAREMOA	Puntuak
1.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona edo adingabea,	20

<i>babesgabetasun/bertan behera uzte egoeran dagoena: tratu txar fisiko edo psikikoak, abusu ekonomikoa, bertan behera utzita edo oinarrizko arretako zabarkeria larriko egoera.</i>	
<i>2.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte laguntzarik gabea: ez duelako familia edo gizarte ingururik, ohiko zaintzaileak arrazoi objektiboak direla medio arretarik ematerik ez duelako, edo familia gatazka edo/eta desestrukturazio larria dagoelako. / Arrisku egoeran dauden adingabeak dituzten familiak.</i>	16
<i>3.-. Bakarrik bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte sare oso murrizta izanik bere laguntza beharra estaltzeko inola ere aski ez diren aldian aldiko laguntza batzuk lortzen dituen. / Zama handia duten edo gizarte egoera egongaitzean dauden familiak.</i>	12
<i>4 – Bakarrik bizi den pertsona (edo mendekotasuna/ezgaitasuna duen norbaitekin bizi dena), familia edo/eta gizarte sareak laguntza batzuk ematen dizkion arren harengandik behar adinako laguntzarik jasotzen ez duena.</i>	8
<i>5 – Beste norbaitekin (mendekotasuna duen norbaitekin) bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte sarea eduki arren harengandik behar adinako laguntzarik jasotzen ez duena.</i>	4
<i>6 – Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona,</i>	0

<i>erraz baliatzeko moduko familia edo/eta gizarte sarea duena.</i>	
GIZARTE-FAMILIA EGOERAREN PUNTUAZIOA (20 puntu gehienez)	

IV. ETXEBIZITZAREN EDO BIZITOKIAREN EGOERA

Etxebizitzaren edo bizitokiaren ezaugarrien balioespena egitean datza, ikusteko zenbateraino baldintza dezaketen pertsona bere kasa moldatzea, ingurunearen kontrola, aukeratzeko ahalmena eta ingurune horretan laguntza edo/eta sostengua jasotzeko aukera.

Irisgarritasuna, bizigarritasuna eta ekipamendua dira kontuan hartzen diren aldagaiak, honako baremo honen arabera:

<i>Etxebizitzaren edo bizitokiaren BAREMOA</i>

IRISGARRITASUNA		
<i>A. Eraikina, kanpotik</i>	➤ Ez du irisgarritasun arazorik.	0
	➤ Eskailerak igo edo jaitsi edo arkitektura oztoporen bat gaudituz behar du etxebizitzara iristeko // Herrigunetik urrun dago, eta oinarritzako baliabideetara iristeko zailtasuna du.	1
<i>B. Eraikina, barrutik</i>	➤ Ez du irisgarritasun arazorik.	0
	➤ Eskailerak daude atarian, igogailura edo etxebizitzara iristeko, eta ez dago horiek saihesteko sistemarik // Ez du igogailurik.	1
<i>C. Etxebizitza, barrutik</i>	➤ Ez dago arkitektura-oztoporik.	0
	➤ Mugitzeko eta moldatzeko zailtasuna dakarten arkitektura-oztopoak daude, ez du segurtasun edo/eta egokitzapen neurririk.	2
IRISGARRITASUNA, GUZTIRA (A+ B+ C)		

BIZIGARRITASUNA	
➤ Ez du bizigarritasun arazorik.	0
➤ Mantentze egokia falta du.	1
➤ Egiturazko arazoak ditu (hezetasuna, komunik ez, sukaldari ez; espazio aski ez; itokinak; instalazio elektriko eta sanitario kaskarra).	3
BIZIGARRITASUNA, GUZTIRA	

EKIPAMENDUA		
	BADAGO	BADABIL
Sukaldea	☐	☐
Ur berogailua/termoa/galdara	☐	☐
Berogailua	☐	☐
Garbigailua	☐	☐
Hozkailua	☐	☐
Telefonoa	☐	☐
➤ Oinarrizko ekipamenduari dagozkion elementu guztiak ditu, eta ongi dabilta.	0	
➤ Oinarrizko ekipamenduari dagozkion 4 elementu ditu, gutxienez, edo elementu guztiak izan arren baten bat ez dabil, baina konpontzeko aukera dago.	1	
➤ Oinarrizko ekipamenduari dagozkion 4 elementu baino gutxiago ditu, eta/edo baten bat ez dabil eta ez dago erabiltzaileak konpontzeko edo berrezartzeko aukerarik.	3	
EKIPAMENDUA, GUZTIRA		

ETXEBIZITZAREN EGOERAREN PUNTUAZIOA (10 puntu gehienez)

V. EGOERA EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa balioesteko, errenta hartuko da kontuan. Lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) %190etik behera, diru sarreraren 10 maila bereizten dira, puntu gehienekotik hasi eta puntu gutxieneakora:

<i>Egoera ekonomikoaren BAREMOA Per capita errenta</i>	<i>Puntuak</i>	
≤%72 LGS /SMI	30	☐
>%72,01-78	27	☐
>%78,01-94	24	☐
>%94,01-110	21	☐
>%110,01-125	18	☐

>%125,01-140	15	☐
>%140,01-156	12	☐
>%156,01-170	9	☐
>%170,01-190	6	☐
>%190,01 LGS / SMI	0	☐
EGOERA EKONOMIKOAREN PUNTUAZIOA (30 puntu gehienez)		
PUNTUACIÓN SITUACIÓN ECONÓMICA (Máximo 30 puntos)		

II. ERANSKINA

PERTSONA ERABILTZAILEEN AHALMEN EKONOMIKOA

A) Onuradunen ahalmen ekonomikoaren kalkulua:

Honako elementu hauek balioetsiz kalkulatu da ahalmen ekonomikoa: errenta, ondarea eta onuradunen kopurua.

1. Errenta gisa ulertzen da onuradunak edo onuradunek honako bide hauetatik guztira jasotzen dituzten urteko diru sarrera garbiak:

- Lanaren etekinak, barne direla pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimenetakoak direla ere; aldi baterako edo bizi arteko errentak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legetik erator litezkeen laguntzak.

- Kapital higigarriaren nahiz higiezinaren etekinak.

- Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

- Aparteko sariak eta diru-sarrerak (herentziak, dohaintzak, ondare-salmenta...). Diru-sarrera horiek sortzapearen ondorengo 4 urteetan zenbatuko dira, eta urte bakoitzeko sariaren edo aparteko sarreraren batura garbia lau zati eginda ateratzen den emaitza zenbatuko da.

Errenta kalkulatzeari, ez dira diru sarrera modura hartuko:

Etxebizitza Prestazio Osagarria, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), PEKen titularrentzako etxebizitzaren osagarria eta Etxebizitza Legetik erator litezkeen laguntzak.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legetik eratorritako prestazio ekonomikoak.

GSINen laguntza ekonomikoa seme-alaba adingabe desgaituagatik.

GSINen Haurrentzako Laguntza Osagarria.

Seme-alabak dituzten familientzako Eusko Jaurlaritzaren laguntzak.

Lanbide zentro batean jarduteagatik jasotako haborokin ekonomikoak.

Aurretiko ohiko etxebizitza batetik alde egin behar izanez gero arkitektura-oztopoengatik edo salbuespenezko arrazoi batengatik (genero indarkeriaren biktima...), etxebizitza haren alokairutik jasotakoa, etxebizitza berria alokatzeko edo erosteko kredituaren gastuei aurre

egiteko beharrezko zenbatekoraino (etxebizitza berriaren gastuaren zenbatekoa gainditzen ez duen parte). Zenbateko baten eta bestearen artean gaindikinik balego, diru sarrera giza hartuko da.

Diru sarrera guztietatik, honako hauek kenduko dira:

Ebazpen judizial bidezko banantzeagatiko konpentsazio pentsioen edo/eta gurasoen eta seme-alaben arteko neurriengatikoen ordainketa, halakorik balego; sarrera horiek kanpo uzteko, dagokien justifikazioa aurkeztu beharko da.

Zerbitzuen aldibereko erabileragatiko ekarpenak: erabiltzailea aldi berean laguntza edo lanbide izaerako beste gizarte zerbitzu baten onuraduna bada, urteroko bat kenduko da diru sarreretatik, laguntza izaerako beste zerbitzuaren gaineko eskumena duen administrazioaren ebazpen bidez ezarritako ekarpenaren eguneko prezioaren arabera.

2. Ondareztat hartzen da eskaera egin aurreko lau urteetako eskatzaile/onuradunen kapital higigarri eta higiezin guztia, nahiz eta eskualdatua izan (kostu bidez edota doan). Kasu horretan, eskualdaketa-tituluan agertzen den zenbatekoa hartuko da kontuan, eta lau urte horiek zenbatzeko, ostatu-etxean sartzeko eskaerako da hartuko da erreferentziazat. Urtealdi bakoitzari dagokiona, ondarearen balio guztia zati lau egitearen emaitza izango da.

Kapital higigarritzat jotzen dira: kontu korranteetako eta epe jakinerako kontuetako gordailuak; inbertsio funtsak eta pentsio funtsak; balore higigarriak; bizi aseguruak eta aldi bateko zein biziarteko errentak; arte objektuak, zaharkinak eta bestelako objektu baliotsuak.

Kapital higiezintzat jotzen dira landa eta hiri izaerako ondasunen urteko balio katastralak. Ohiko etxebizitza (garajea eta trastelekua barne) ez da ondorio hauetarako kapital higiezintzat hartuko.

Era berean, ez da zenbatuko ondare higiezina, baldin eta haren gaineko titulartasuna %100ekoa ez bada.

Zerbitzu mota, bizikidetza unitatea eta ahalmen ekonomikoaren zenbatzea

3 zerbitzu mota bereizten dira:

- Etxeko laguntza.
- Laguntza pertsonalekoak.
- Mistoa (etxeko laguntza + laguntza pertsonala).

Bizikidetza-unitatea eman beharreko zerbitzu motaren arabera zehaztuko da, honela:

- Zerbitzua ematen den etxebizitzan bizi diren pertsona guztiek osatuko dute bizikidetza-unitatea, etxeko zerbitzua edo zerbitzu mistoa denean (etxeko laguntza + laguntza pertsonala).

- Bizikidetza-unitatea hurrengo a) eta b) idatz-zatietan adierazitakoaren arabera osatuko da, zerbitzu pertsonala denean:

a) Zaindu beharreko adin nagusiko pertsonen kasuan:

- Legez eratutako ezkontza edo izatezko bikotea.
- Etxebizitzan bizi diren eta diru-sarrerarik ez duten 30 urtetik beherako seme-alabak.

- 30 urtetik gorako seme-alabak, judizialki ezgaituta badaude edo % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta badute, etxebizitzan bizi badira eta diru-sarrerarik ez badute.

b) Artatu beharreko adingabeen kasuan:

- Berak eta adingabearen zaintza eta jagoletza duten gurasoek.

- 30 urtetik beherako anai-arrebak eta adin bera edo handiagoa dutenak, judizialki ezgaituta badaude edo % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta badute, etxebizitzan bizi badira eta diru-sarrerarik ez badute.

Erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa zenbatzeko, bizikidetzaren unitatearen higiezinaren eta higigarrien kapitalaren eta urteko diru-sarrera garbiena hartuko da kontuan, eman beharreko zerbitzu motaren arabera, eta unitate hori osatzen duten pertsonen kopuruaz zatituko da.

B) Onuradunek egin beharreko ekarpen ekonomikoa

III. ERANSKINA

TAASA ETA EKARPEN TAULA

1.- Tasa

Udalak urtero ekitaldi ekonomiko baterako onartzen duena izango da tasa, eta bere webgunean argitaratuko da.

2.- Ekarpenen koadroa

Ahalmen ekonomikoa (II. ERANSKINA) aztertu ondoren, erabiltzaileak zerbitzuaren tasari egin beharreko ekarpena honako ekarpen koadroaren arabera zehaztuko da:

LAGS sarrerak Ingresos SMI	Ekarpena Aportación
LAGS (SMI)ren $\leq$ 70	%2
>%70,01-72	%5
>%72,01-78	%10
>%78,01-94	%15
>%94,01-110	%25
>%110,01-125	%40
>%125,01-140	%55
>%140,01-156	%75
>%156,01-170	%90
>%170,01-190	%95
LAGSren >%190,01	%100

3.-Ondarea zenbatzea

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, tasaren %100 ordainduko dute.

Kide kopurua	Gehienezko ondarea
1	38.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago (o más)	85.000.-€

4.- Eguneratzea

Eranskin hau urtero eguneratuko da, udal osoko erabakiaren bidez .

b.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK: XXXVI. BEASAIN IDAZLEHIAKETAREN OINARRIAK 2025OIEU0004

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“Gaia: XXXVI. Beasain idazlehiaketaren oinarriak onartzea eta deidaldia egitea aurrekariak:

1.- 1989. urtean Beasaingo Udalak Beasain Idazlehiaketa sortu zuen udalerriko ikastetxeekin elkarlanean, 9-18 urte bitarteko haur eta gazteen artean euskaraz idazteko zaletasuna sustatzeko. Lehiaketan Beasaingo umeen eta eskualdeko gazteen prosa eta poesia lanak saritzen ziren eta 2009an bertso-atala erantsi zitzaion.

2.- 2016-2017 ikasturtean oinarriak egokitu eta berritu egin ziren.

3.-Lehiaketa bost mailatan sailkatua dago:

- A maila: batxillergoko ikasleak (16-17 urte)*
- B maila: DBH 3 eta 4 mailako ikasleak (14-15 urte)*
- D maila: DBH 1 eta 2 mailako ikasleak (12-13 urte)*
- E maila: LHko 5 eta 6 mailako ikasleak (10 -11 urte)*
- F maila: LHko 3 eta 4 mailako ikasleak (8-9 urte)*

4.- Prosa, bertsoak eta poesia lanak saritzen dira jarraian adierazten den moduan:

- A maila: prosa, bertsoak eta poesia.*
- B maila: prosa, bertsoak eta poesia.*
- D maila: prosa eta bertsoak*
- E maila: prosa eta bertsoak*
- F maila: prosa.*

5.- 4.425, 00 € ematen ditu Udalak saritan.

6.- Lehiaketako sarituek garaikurra eta diruzko saria jasotzen dute eta aipamendunek, berriz, diploma eta dirua.

7.- Beasaingo Udalak saritutako lanak web orrian argitaratuko ditu.

Ondorengo kontuan hartuta:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14)
- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025 (2. Helburu estrategikoa: Udalerriko ekintza kulturalak babestea. 2.2. Diru-laguntza ildoak: Kultur sorkuntza sustatzea).
- Egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin helburua lortzen lagundu dela eta 9-18 urte bitarteko beasaindarrek beren euskaraz idazteko gaitasuna eta kultur sorkuntza garatzeko behar zuten bultzada eskaini zaiela.

Une honetan, 2025-2026 ikasturterako oinarriak onartu behar dira. Eta ondorioz, deialdi hau aldeztu aurretik egingo da, 2026ko ekitaldian ebatziko baita. Beraz, oinarri hauen xede diren dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.

PROPOSAMENA

Herritarrek batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: XXXVI. BEASAIN IDAZLEHIAKETAREN oinarriak onartzea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

“XXXVI. BEASAIN IDAZLEHIAKETAREN oinarri arautzaileak onartzea 2025-2026 ikasturterako

ZIOEN AZALPENAK

Udalaren helburua kultur sorkuntza bultzatzea eta zehazki euskaraz idazteko zaletasuna bultzatzea.

Helburu horrekin, Beasaingo Udaleko Kultura, Euskara eta Merkataritza azpisailak 1989. urteaz geroztik Beasain Idazlehiaketa arautzeko oinarriak onartu eta dagokion deialdi publikoa egin du.

2024-2025 ikasturteko edizioan 229 idazlan aurkeztu ziren lehiaketara, beraz egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin helburua lortzen lagundu dela eta 9-18 urte bitarteko beasaindarrek euskaraz idazteko gaitasuna eta kultur sorkuntza garatzeko behar zuten bultzada eskaini zaiela.

Laguntza hauek arautzen dituen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

- 2/2016 LEGEAn, apirilaren 7koan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan, 7.2. artikuluan udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena.
Era berean, Legeak, zehazki, 17,1 20) eta 26) artikuluan, Udalari eskumena ematen dio kultura eta kultur jarduerak antolatze eta sustatzeko.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14)

- 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen duena.
- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025 (2. Helburu estrategikoa: Udalerriko ekintza kulturalak babestea. 2.2. Diru-laguntza ildoak: Kultur sorkuntza sustatzea).

Lehena.- Xedea.

Beasaingo Udalak, eskualdeko hainbat ikastetxeren laguntzarekin, BEASAIN IDAZLEHIAKETA antolatzen du. Oinarri hauen helburua lanak aurkeztearekin hasi eta saritutako lanak argitaratzearekin amaitzen den idazketa-lehiaketaren alderdi garrantzitsuak arautzea da.

Bigarrena.- Finantziak

Hurrengo oinarrietan ezarritako diru-laguntzak finantzatzeko 2026an aurreikusitako aurrekontua 4.425,00 €-koa da.

Aurretiazko izapidetzea da, eta 887/2006 RGSren 56. Artikuluan jasota, deialdiaren ebazpena oinarri hauek onartu eta argitaratu eta hurrengo ekitaldian emango baita; eta hori gertatzen da normalean kreditu egokia eta nahikoa dagoelako gastuaren aurrekontu-estaldurarako.

Adierazitako zenbatekoa zenbatetsia da, eta, beraz, dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da, dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.

Hirugarrena.- Oinarriak argitaratzea.

Oinarri hauek Udalaren osoko bilkurak onartu ondoren DBNSra bidaliko dira, eta, ondoren, GAO-n argitaratuko dira.

Oinarri hauek argitaratzeaz gain, oinarrien eta deialdiaren berri emango zaie Beasaingo ikastetxe guztiei eta Lazkao eta Ordiziako DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako ikastetxeei.

Laugarrena.- Parte hartzeko baldintzak.

- * A mailan: 2008 eta 2009 urteetan jaio eta Beasaingo, Ordiziako edo Lazkao irakaskuntza ertainetako ikastetxeetan ikasten dabiltzan ikasleak edota, Beasainen erroldatuta egonik, beste nonbait irakaskuntza ertainetan ikasten dabiltzan adin berekoak izan daitezke.
- * B mailan: 2010 eta 2011 urteetan jaio eta Beasaingo, Ordiziako edo Lazkao irakaskuntza ertainetako ikastetxeetan ikasten dabiltzan ikasleak edota, Beasainen erroldatuta egonik, beste nonbait irakaskuntza ertainetan ikasten dabiltzan adin berekoak izan daitezke.
- * D mailan: 2012 eta 2013 urteetan jaio eta Beasaingo, Ordiziako edo Lazkao irakaskuntza ertainetako ikastetxeetan ikasten dabiltzan ikasleak edota, Beasainen erroldatuta egonik, beste nonbait irakaskuntza ertainetan ikasten dabiltzan adin berekoak izan daitezke.
- * E mailan: 2014 eta 2015 urteetan jaio eta Beasaingo Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan ikasten dabiltzan ikasleak.
- * F mailan: 2016 eta 2017 urteetan jaio eta Beasaingo Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan ikasten dabiltzan ikasleak.

Bosgarrena.- Lanak aurkeztea.

Parte hartzen dutenek ikasketak egiten dituzten ikastetxeetan aurkeztuko dituzte lanak. Hauek lehenengo aukeraketa bat egingo dute.

Ikastetxeek Beasaingo Udalak helburu horretarako sortutako web aplikazioaren bitartez aurkeztuko dituzte aukeratutako lanak. Lanak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 20an amaituko da 14:00etan.

Aurkeztu beharreko lanen gehieneko kopurua:

- Lehen Hezkuntza (E eta F mailak) 3 lan gela eta atal bakoitzeko.
- DBHn eta batxilergoan (A, B eta D mailak) 2 lan gela eta atal bakoitzeko.

Ikasle bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du maila eta atal bakoitzeko (prosa, poesia eta bertsoa).

Seigarrena.- Aurkeztu beharreko datuak.

- **Idazlana.** Aurkezten den lan bakoitzarekin batera ondorengo datuak eman beharko dira:

- Maila
- Atala
- Idazlanaren izenburua
- Egilearen izen-abizenak
- Argazkia
- Helbidea
- Telefonoa

Zazpigarrena.- Idazlanen ezaugarriak eta bete beharreko baldintzak.

Aurkezten diren lanak euskaraz zuzen eta egoki idatzita egongo dira. Horretarako Euskaltzaindiak onartuta dauzkan ortografia eta gramatika arauak izango dira oinarri. Idazlanen zuzenketa ikastetxeak egin behar du.

Aurkezten diren lanek Genero Berdintasunaren ikuspegitik, ondorengo irizpideak hartuko dituzte kontuan:

- Hizkuntzaren erabilera ez sexista eta barneratzailea bermatuko da. Hitanoa ere zuzen erabiliko da.
- Debeku da pertsonen, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duten testuak eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten testuak ere.

Atalak

- Prosa

Gaia librea izango da. Idazlanak, prosaz euskaraz norberak idatziak, originalak, aurrez saritu gabeak eta argitaratu gabeak izango dira. Itzulpenek ez dute balio izango.

Idazlanen neurriak honako hauek izango dira:

- A mailan 1.000 hitz gutxienez eta 2.500 gehienez.

- B mailan 800 hitz gutxienez eta 2.000 gehienez.
- D mailan 500 hitz gutxienez eta 1.500 gehienez.
- E mailan 500 hitz gutxienez eta 1.500 gehienez.
- F mailan 250 hitz gutxienez eta 500 gehienez.

- Bertsoak

A, B, D eta E mailakoentzat. Gaia librea izango da. Bertsoak euskaraz idatziko dira eta originalak, aurrez saritu gabeak eta argitaratu gabeak izango dira. Itzulpenek ez dute balio izango.

- A mailan: 6 bertso edo 10 koplak
- B mailan: 6 bertso edo 10 koplak
- D mailan: 4 bertso edo 8 koplak
- E mailan: 2 bertso edo 4 koplak (maila honetako lanak bakarkakoak edo taldekoak izan litezke)

- Poesia

A eta B mailaketako ikasleentzat. Gaia librea izango da. Olerkiak euskaraz idatziko dira eta originalak, aurrez saritu gabeak eta argitaratu gabeak izango dira. Itzulpenek ez dute balio izango.

- A maila: gutxienez 40 lerro
- B maila: gutxienez 20 lerro.

Aurkeztutako lanak originalak ez direla edota beste lehiaketaren batean sarituak izan direla egiaztatzen bada, lehiaketatik kanpo geldituko dira. Egiaztapena sariak banatu ondoren egingo balitz, emandako sariak kendu egingo lirateke. Horrelakoen egileek ez lukete gehiago beren lanik lehiaketa honetara aurkezterik izango.

Zortzigarrena.- Epaimahaiaren osaketa eta eginbeharrak.

Osaketa:

- A, B eta D mailaketako epaimahaia: Maddi Aiestaran Iparragirre, Maitane Legarreta Etxezarreta eta Iñigo Pérez Mujika.
- E eta F mailaketako epaimahaia: Maider Agirre Gurrutxaga, Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena eta Amets Irastorza Ezkiaga

Eginbeharrak:

- Jasotako idazlan guztiak aztertu eta saridunak izendatu 2026ko martxoaren 27a baino lehen.
- Sari-emate ekitaldian parte hartu.
- Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, sariak eman gabe utz ditzakete epaimahaioek.

Bederatzigarrena.- Sariak

A mailan:

Prosazko atala

1. saria: 210 € eta oroigarria

2. saria: 150 € eta oroigarria

3. saria: 90 € eta oroigarria

Eta 3 aipamen: 50 euro eta diploma

Olerki-atala

1. saria: 210 € eta oroigarria

2. saria: 150 € eta oroigarria

Eta 2 aipamen: 50 € eta diploma

Bertso-atala

1. saria: 210 € eta oroigarria

2. saria: 150 € eta oroigarria

Eta 2 aipamen: 50 € eta diploma

B mailan:

Prosazko atala

1. saria: 180 € eta oroigarria

2. saria: 130 € eta oroigarria

3. saria: 80 € eta oroigarria

Eta 3 aipamen: 50 € eta diploma

Olerki-atala

1. saria: 180 € eta oroigarria

2. saria: 90 € eta oroigarria

Eta bi aipamen: 50 € eta diploma

Bertso-atala

1. saria: 180 € eta oroigarria

2. saria: 90 € eta oroigarria

Eta bi aipamen: 50 € eta diploma

D mailan:

Prosazko atala

1. saria: 150 € eta oroigarria

2. saria: 110 € eta oroigarria

3. saria: 70 € eta oroigarria

Eta 3 aipamen: 50 € eta diploma

Bertso-atala

1. saria: 150 € eta oroigarria

2. saria: 80 € eta oroigarria

Eta 2 aipamen: 50 € diploma

E mailan:

Prosazko atala

1. saria: 120 € eta oroigarria

2. saria: 85 € eta oroigarria

3. saria: 50 € eta oroigarria

Eta 3 aipamen: 25 € eta diploma

Bertso-atala

1. saria: 120 € eta oroigarria

2. saria: 60 € eta oroigarria

Eta 2 aipamen: 25 € eta diploma

F mailan:

Prosazko atala

1. saria: 90 € eta oroigarria

2. saria: 60 € eta oroigarria

3. saria: 30 € eta oroigarria

Eta 3 aipamen: 25 € eta diploma

Hamargarrena.- Lehiaketa ebaztea.

Epaimahaiak sarituak izendatuko ditu, eta alkateak, epaia ezagutu ondoren, ebazpena emango du gehienez ere 5 eguneko epean. Sarituei ikastetxearen bidez jakinaraziko zaie.

Jakinarazpena jaso eta 10 eguneko epean, sarituek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Beasaingo Udaleko Kultura, Euskara eta Merkataritza azpiarloan:

- Biografia laburra
- Sarituaren NAN zenbakia.
- Diru-sarrera egin ahal izateko bankuko kontu zenbakia.

Ordainketa egin aurretik, udal zerbitzuek sarituek baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatuko dute:

- a) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako inguruabar eragozleetako batean ere ez egotea.

- b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea eta Beasaingo Udalarekin zorrik ez izatea.

Udalak, baldintza horiek betetzen direla bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko ditu, sariduna horren aurka azaldu ezean.

Kasu horretan edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa lortu esandako moduan, saridunari eskatuko zaio adierazitako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkezteko.

Hamaikagarrena.- Sariak emateko ekitaldia.

Sariak emateko ekitaldi publikoa Igartzako jauregian izango da, eta eguna eta ordua Beasaingo Udalaren webgunearen bidez jakinaraziko dira.

Hamabigarrena.- Saritutako idazlanak argitaratzea.

Saritutako lanak Beasaingo Udalarenak izango dira aurrerantzean, eta, horregatik, argitaratzeko eskubidea toki-erakundeari dagokio.

Lanak Beasaingo Udalaren webgunean emango dira ezagutzera.

<https://www.beasain.eus/aurkezpene-beasain-idazlehiaketa>

Hamahirugarrena.- Datuen babesa.

Eskatzaileen eta saritutakoen datuen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

Hamaulagarrena.- Ebazpena eta helegiteak.

Oinarri hauek administrazio-izaera dute eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.”

4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

- a. ANDRAMENDI KALEKO BAZTERBIDEA EGITEKO ETA BIDEA ZABALTZEKO ETA NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO ERABILERAKO BILTEGIA ERAISTEKO" PROIEKTUAK ERASANDAKO TITULARREN, ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA BEHIN BETIKO ONARTZEKO ERABAKIARI AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE-ERREKURTSOAREN EBAZPENA. 2025PROB0004

Ezagutzera eman da, Lurralde batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.- 2025-09-25. Osoko bilkuraren erabakia, "Andramendi kaleko bazterbidea egiteko eta bidea zabaltzeko eta nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerarako biltegia eraisteko" proiektuari aurkeztutako

alegazioak ebazteko eta desjabetzearen eraginpeko ondasun eta eskubideak okupatu beharra onartzeko.

II.- 2025-09-30. Hartutako erabakiaren berri ematea desjabetzearen eraginpeko ondasun eta eskubideen titularrei, eta adieraztea berraztertzeko errekurtsua aurkez dezaketela administrazio-bidean, jurisdikzio-bidean administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri aurretik.

III.- 2025-10-01, 2025-10-02 eta 2025-10-08. Hartutako erabakiaren iragarkiak Berria, Diario Vasco eta GAO onargaratzea.

IV.- 2025-11-3. Francisco María Dorronsoro Arrieta jaunak berraztertzeko errekurtsua aurkeztea.

V.- 2025-11-21. Idazkariak txosten juridikoa eman du aurkeztutako errekurtsuari buruz.

VI. 2025-11-24. Udalari aholkularitza ematen dion arkitektoak txostena eman du aurkeztutako errekurtsuan planteatutako gai teknikoei buruz.

OINARRI JURIDIKOAK

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1, 31) artikuluan.

- Beasaingo bideen azterketa

- Hiri Antolaketa Arauen aldaketa puntualaren, landa-eremurako irisgarritasunarekin lotutako oinezkoen sareari dagokiona (ingurabide berdea). Behin betiko 2010eko urriaren 29ko osoko bilkuran onartutakoa (2011-02-17ko GAO).

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 54.2d), 176. Eta 177b), artikulua

Lurralde Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

ERABAKI DU

Lehenengoa. Francisco María Dorronsoro Arrieta jaunak aurkeztutako berraztertzeko errekurtsua ezestea, emandako txosten juridiko eta teknikoekin arabera (Ikus I Eranskina).

Bigarrena. Erabakia errekurtsu-egileari helaraztea, eta adieraztea erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakeela, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

I ERANSKINA

TXOSTEN JURIDIKOA, birjarpen helegiteari erantzuna ematen diona.

Errekurtsogileak aurkeztutako ALEGAZIOAK honako hauek dira:

- Badira hain garestiak ez diren konponbideak, jabetzari eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenari eragingo ez dietenak; adibidez, semaforo bat jartzea.

- Bidea baserriko ataurreetatik igarotzen da, etxaldea bitan zatituz eta zortasuna eta eragozpenak sortuz. Zortasun eta eragozpen horiek ez daude jasatera behartuta, interes orokorra arrazoitu ez delako.

- Ez dago loturarik desjabetzearen kausaren eta desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen artean.

- Ez dago justifikatuta helburu horretarako behar-beharrezkoak ez diren ondasun edo eskubideak desjabetzea, biltegiarekin gertatzen den bezala; izan ere, ez da arrazoitu ez teknikoki ez juridikoki horiek eraisteko beharra.

- Bidearen erabilera hondarrekoa da. Bi baserri baino ez ditu: Beatxurreta eta Agerre Haundi.

- Publiko gisa funtzionatzen duen bidea da, baina titulartasun pribatukoa.

- Ez dator bat alegazio-egileak Agerre-Haundi eta Foru kalea 46-48 lotzen dituen bidea erabiltzeko proposatutako alternatiba baztertzeko irizpide teknikoarekin, gehiegizko malda duelako eta ez delako datu teknikorik edo aurrekontuari buruzko daturik ematen. Teknikoki posible dela uste du, eta adibide gisa Egia auzoko Konkorrenea kalea jarri du.

- Ez dira baloratu inguruko baserri guztietarako sarbide independenteen datu historikoak, gaur egun agerikoak, egokiak eta eraginkorrak direnak.

OINARRI JURIDIKOAK

Erabilera publikoko landa-bideak mantentzeko udal-eskumena.

Udalari dagokio landa-bide publikoak zaintzea eta mantentzea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1, 31) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Foru kaletik abiatuta Andramendi eta Agerre baserriak lotzen dituen bidearen izaera.

Bideak erabilera eta jabari publikoko ondasuntzat definitu eta hartzen dira, horri dagozkion ondorioekin; horregatik da garrantzitsua haien izaera publikoa edo pribatua bereiztea. Zuzenbide pribatuan, bide-zorren eraketa Kode Zibileko 564 eta hurrengo artikuluetan aurreikusita dago. Izaera publiko edo pribatua lurzoruen izaera publiko edo pribatuaren baitan egongo da. Bide publikoa deitzen diogu lurzoru publikoa duenari. Bide pribatuaren zoria arrotza da, eta bere gainean zortasuna besterik ez dago.

Bide-zorra zortasun etena da, eta, beraz, jabea dela adierazten duenak erosketa-titulua frogatu beharko du; eta bide-zorra duen lursail pribatua bada, titulua, gainera, Jabetza Erregistroan inskribatuta agertu beharko da.

Bidea igarotzea eragozten duen partikularra da lursailen jabetza eta eskuratzeko modua egiaztatu behar dituen, eta, hala badagokio, bere finkaren gaineko bide-zorra dela egiaztatu behar duena (bide pribatua).

Errekurtsogileak ez du inola ere aurkeztu bidearen jabetza-titulurik, ezta bide-zortasunaren eskubidearen eraketaren titulurik ere.

Aspalditik (1903-02-28ko eskritura, Andre-Iturri baserriaren salerosketari buruzkoa), aipatutako baserriaren deskribapenean, eta zehazkiago, bertan definitzen diren mugetan, "bidearekin" muga egiten duen adierazten da, eta gauza bera gertatzen da baserriaren zenbait terrenoekin. Muga horrek gaur egun arte iraun du puntu kardinaletako batean, eta, beraz, desjabetzeak eta aldi baterako okupazioak eragindako finketan, gauza bera esaten jarraitzen du, hau da:

- 3571 finka. Hegoaldean gurdibidea du mugakide.

- 3567 finka, iparraldetik bidea du mugakide.

Are gehiago, Aguirrezabala izeneko baserriaren mugetara joz gero (262. finka), iparraldetik eta ekialdetik muga egiten duela dio, Foruen bidetik irten eta Andra-Iturri baserrirantz doan bide publikoarekin.

Errekurtsogileak bidearen titulartasun pribatua egiaztatu ez duenez, Beasaingo bideen azterketara jo dugu (2003. urtea).

Bertan, bide publiko gisa agertzen da (titulartasuna eta erabilera publikotzat jotzen direnak) 7. zk. gisa adierazitakoa, Agerrezabal bidea, zeinaren ezaupideen artean honako hauek baitaude:

Hasiera: Beasaingo hirigunea, Andramendi baserria

Amaiera: Murumendi bidea

Zeharkatzen dituen eraikuntzak: Andramendi eta Aguerrezabal baserriak

Luzera: 738 m.

Erabilerak. Lehenengo zatia Andramendi, Agerrezabal, Agerre eta Beatxurreta baserrietara joateko bakarrik erabiltzen da.

Azterketa hori egiteko jaso ziren testigantzen artean, Olazar, Otaño, Abarizketa goikoa eta Behekoa, Beatxurreta eta Agerrezabal biztanleenak daude, guztiak publikoak direla uste baitute. Agerre eta Andramendi baserrikoek Agerretik herrirako tartea bakarrik hartzen dute publikotzat. Andramendi baserriaren jabeak, José Dorronsoro Murgiondok, adierazi zuen bidea publikoa zela, baina ez zegoela batere ados baserriaren zabalerarekin eta erabilerarekin.

Desjabetze-kausaren eta desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen eta egin beharreko jarduketaren interes orokorraren arteko lotura.

Adierazi behar da "desjabetzearen arrazoa" ez datorrela, "Andramendi kalean bazterbidea egitea eta bidea zabaltzea eta nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerarako biltegia eraistea", obra-proiektua onartzetik, baizik eta plangintza orokorretik, eta zehazki, ondorengo dokumentutik: Hiri Antolaketako Arauen aldaketa puntualaren, landa-eremurako irisgarritasunarekin lotutako oinezkoen sareari dagokiona (ingurabide berdea). Behin betiko 2010eko urriaren 29ko osoko bilkuran onartutakoa (2011-02-17ko GAO).

Azken hau da tresna egokia Foru kaletik abiatu eta Andramendi eta Agerre baserrietatik igarotzen den bidea zuzkiduraz kalifikatzeko. Bide hori Ingurabide Berdean/Naturbiden sartutako bidea da (ikus erantsitako plana), eta sistema orokorren zuzkidurazko bide-sarearen parte da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 54,2d) artikulua).

Aipatutako dokumentuaren hirigintza-araudiaren 86,2. artikuluan honako hau ezartzen da:

- Udalak oinezkoentzako sarea hobetu eta handitu ahal izango du (lehendik dauden baserrietarako eta nekazaritza eta abeltzaintzako finketarako sarbide funtzionalari eutsiz), Naturbide/Gerriko Berdea izenekoa. Aldez aurretik, dagozkion obra-proiektuak formulatu eta izapidetu beharko ditu, eta ukitutako lursailak, instalazioak eta eraikinak desjabetu.
- Ingurabide Berdea/Naturbide handitzeak eragina izan dezake, beharrezkoa denean, hura egitea eragozten duten eraikin osagarrietan, instalazioetan edo elementuetan (itxiturak, deposituak). Ukitutako elementuak desjabetu egingo dira, eta lursailak lortzeko susta daitezkeen espedienteetan kontuan hartuko dira.

Dokumentu hori behin betiko onartzeak dakar obrak onura publikokoak izatea eta eraginpeko lurak eta gainerako ondasun eta eskubideak okupatu beharrak izatea, desjabetzeko edo zortasunak ezartzeko (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 176. artikulua).

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 177.b) artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, aztertzen ari garen kasuan, hirigintza-arrazoiengatik desjabetzeko kasu baten aurrean gaude, hau da, sistema orokorren eta lokalen sareko zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketak garatzeko beharrezkoak diren lursailak eta gainerako ondasunak eta eskubideak lortzearen aurrean, jarduketa integratuetan sartu eta atxiki gabe.

"Desjabetzearen arrazoia" zehaztu ondoren, "Andramendi kaleko bazterbidea egitea eta bidea handitzea eta nekazaritza eta abeltzaintzarako biltegia eraistea" izeneko obra-proiektua idatzi eta onartu da eta proiektuaren Memorian hau jasotzen dira:

- Lehendik dagoen erabilera publikoko bide baten irisgarritasun-baldintzak hobetzeko egin beharreko jarduketak.

- Desjabetzearen eraginpeko ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, horiek egikaritzeko.

Hori guztia interes orokorraren alde, proiektatutako jarduketa gauzatuz pertsonen eta ondasunen segurtasuna zaintzea lortzen delako.

ONDORIOAK

Lehenengoa. Irisgarritasuna hobetu nahi zaion bidea erabilera publikokoa da, honako hauek oinarri hartuta:

- Errekurtsogileak ezagutzen dituen 2025-09-25eko udalbatzaren erabakian aipatutako jurisprudentzia-erabakiak.
- Finkaren deskribapenean eta Andre-Iturri eta Aguirrezabala baserrien terrenoetan bideari egindako erreferentziengatik.
- Inguruko bizilagunen testigantzak, Beasaingo bideen azterlana egiteko jaso zirenak.

Jabetzaren Erregistroan bide publiko gisa ez agertzea ez da bidearen aurkako froga bat, eta ez du egiaztatzen bidearen titulartasun pribatua denik, errekurtsogileak hirugarren alegatuan adierazi bezala, ez baitu aurkeztu inolako jabari-titulurik ezta ere jurisdikzio zibilaren inolako epairik jabetzaren-gaia ebazten duena.

Bigarrena. Adierazitako arrazoiengatik, publiko gisa funtzionatzen duen bidea udal-jabariaren zati da, eta, horregatik, Udalak gorde eta babestu behar du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ematen dion eskumenari jarraiki.

Hirugarrena. Erabilera publikoko bidea inbentariatuta dago, Naturbideko Ingurabide Berdearen zati da eta sistema orokorren (bide-sarea) zuzkidura-kalifikazioa du.

Laugarrena. Landa-lurralderako irisgarritasunarekin lotutako oinezkoen sarea hobetzea eta jardutea, lehendik dauden baserrietarako eta nekazaritzako eta abeltzaintzako finketarako sarbide funtzionala barne hartzen duena, "desjabetze-kausa" gisa jasota dago plangintza orokorrean. Plangintza horri aitortzen zaio, inplizituki, obrak onura publikokoak direla eta desjabetzearen ondorioetarako ondasunak eta eskubideak okupatu behar direla.

Bosgarrena. Interes orokorraren mesedetan egin behar direla justifikatzen duen obra-proiektua onartzeak berekin dakar beharrezko okupazioak eragindako titular, ondasun eta eskubideen zerrenda zehatza, eta Beasaingo Udala horien onuradun deklaratzeko.

TXOSTEN TEKNIKOAK, birjarpen helegiteari erantzuna ematen diona:

Hirigintza-araudi aplikagarria

- Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen berrikustea eta egokitzea. Testu bategina -AA.SS.- (GAO 2007/11/06).
- Landa eremura sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Beasaingo Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa (GAO 2011/02/17)
- Beasaingo Hiri Antolatzeko Plan Orokorra (Hasierako onarpena GAO 2023/02/13 eta 2024/08/07)

Bai indarrean dauden AA.SS.etan, baita hasierako onarpena jaso duen HAPO-n ere, lanek eragindako lursailak, lurzoru urbanizaezinean kokatzen dira. Indarrean dauden AA.Ssetan, Bidearen kalifikazioa honakoa da: BSO Bide Sarea Sistema Orokorra/Bide Sare Alternatiboa/Landa eremura sartzeko oinezkoen bide sarea/Gerriko berdea-naturbidea.

Txosten teknikoa

Txosten hau aurkeztutako berraztertze errekurtsoan emandako argudio teknikoak eta hirigintzakoak aztertze eta horien egokitasuna baloratzeko idatzi da, eta Idazkaritzak emandako txostena osatzen du, errekurtsoaren alderdi juridikoak aztertzen dituena.

- Errekurtsoaren 2. atala: adierazten du errekurritutako Akordioak alde batera uzten dituela balizko zenbait konponbide (semaforoa), hain kaltegarri eta garesti ez liratekeenak, zeinak ez lioketen eragingo ez jabetzari, ez ustiapenari. Ondorioztatzen duenez, "justifikaziorik gabea da helburu hori betetzeko behar-beharrezkoak ez diren ondasunak edo eskubideak desjabetzea". Biltegia desjabetzearen aurka dago, "ez teknikoki ez eta juridikoki ere ez delako frogatu haren ezinbestekotasuna, eta, gainera, Andramendi baserriaren interesak eta eskubideak alde batera utzi direlako, arrazoi ilunak argudiatuz, eta ez delako inola ere interes orokorraren beharra oinarritzera hurbiltzen, bidearen erabilera residuala dela jakin arren, haren erabilera bi baserritara mugatzen baita (Beatxurreta eta Agirre Haundi), eta, gehienez ere, 6-8 ibilgailura".

- Errekurtsoaren 4. atala. Foru Kalea 46-48 errepidearekin komunikatzen du en Agerre-Haundiko bidearen erabilerrari dagokionez, dio, "teknikariak baztertu egiten duela %30eko maldagatik, eta lurzoru urbanizaezina ez izateagatik. Teknikoki, egikaritze hori posible dela, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko beste kale batzuetan dagoela, hala nola Egiako auzoko Konkorrenea kalean. Horren kostuari dagokionez, ez dela inolako datu teknikorik edo aurrekontu-daturik ematen, eta automatikoki baztertu dela, inguruko baserri guztietarako sarbide independenteen datu historikoak baloratzen hasi gabe. Sarbide horiek bideragarriak, egokiak eta efizienteak direla gaur egun".

2. atalari erantzunez, adierazi behar da, onartutako urbanizazio proiektuak helburu bikoitza duela:

- Andramendi eta Agirrezabal baserrien arteko bidean ibilgailuak igarotzea eta gurutzaketa ahalbidetzea, segurtasun-baldintzetan. Gaur egun, bidearen estutasuna eta kurbadura, iparraldeko ezpona eta landaredia, eta bidearen beraren malda direla eta, zaila da maniobra hori egitea
- Andramendi baserriaren eta nekazaritzako eta abeltzaintzako biltegiaren eta eustormaren artean dagoen eremuan ibilgailuak biratu eta pasatzea ahalbidetzea, horietako askok gaur egun zailtasun handiak baitituzte (nekazaritzako eta abeltzaintzako ibilgailuak, anbulantziak, suhiltzaileak...).

Lehenengo helburuari erantzuteko, tarte horren erdian ibilgailuentzako bazterbide bat egitea proposatzen da, eta egungo bidea metro batean zabaltzea, 3 metro inguruko zabalerara lortu arte. Zabaltze horri esker, atzera-martxako maniobra egin daitezke segurtasun-baldintzetan, 2 ibilgailu gurutzatuz gero, bazterbideraino atzera egin ahal izateko.

2. helburuari erantzuteko, Andramendi baserriaren eta eustormaren arteko egungo pasabidea iparralderantz zabaltzea proposatzen da; izan ere, hormen artean gaur egun dauden 2,50 metro eskasek, eta kurbadura txikiak, ohikoak baino handiagoak diren ibilgailuak pasatzea oztopatzen dute, gutxieneko segurtasun-baldintzetan. Gainera, bidearen egungo neurriek (iparraldean eta hegoaldean dauden eraikinek zehazten dutena) mota horretako ibilgailuak 90º-ra biratzea eragozten dute.

Errekurtsoan proposatzen den alternatibak, semaforo bat jartzeak alegia, ez du 2. arazo hori konpontzen; izan ere, ibilgailuak egungo baldintza berberetan biratu eta igaroko lirateke.

Baserriaren ustiapenaren gaineko eraginari dagokionez, **ezerk ez du eragozten biltegia baserriko beste sail batean berreraikitzea. Horrela, biltegiaren desjabetzea biltegia birjartzearen kostuaren arabera baloratuko da; horrekin, ustiapenean eraginik ez izatea bermatuta geratzen da.**

Beraz, ustezko "eragin kaltegarria" ibilgailuak 2 baserritara (Agerre Haundi eta Beatxurreta – 6-8 ibilgailu, errekurtsogilearen beraren arabera) pasatzeak sortuko lituzkeen "eragozpenetara" mugatuko litzateke; hots, azken mende erdian, gutxienez, eragin hori izaten ari da. Udalaren proposamenaren helburua da eragin hori gutxieneko segurtasun-baldintzetan egitea, bai ibilgailuentzat, bai Andramendi baserriko biztanleentzat ere.

4. atalari erantzunez, Agirre Haundi parean dagoen oinezkoentzako bideak, 46 eta 48 zenbakien artean Foru Kalearekin lotzen duenak, % 23ko batez besteko malda du eta tarteka % 30etik gorako malda.

Gipuzkoako Lurraldean antzeko maldak dituzten kaleak daude (prentsa-laburpen bat aurkezten da, non Gipuzkoan malda handienak dituzten kaleak zerrendatzen diren, % 20 eta % 29 bitartekoak – "infemukoak", "ahalegin handia eskatzen dute hirian", " kilometro hiltzaile ahaztezinak" –), **baina horrek ez du justifikatzen teknikoki egokiak direnik**. Gaur egun, egungo araudi eta irizpideekin, ez lirateke horrela egingo.

Horri dagokionez, eta erreferentzia gisa:

- Irisgarritasun unibertsalaren ikuspegitik, bai 68/2000 Dekretuak (autonomikoak), bai TMA/851/2021 Aginduak (estatukoak), biak hiri-inguruneen irisgarritasun-baldintzei buruzkoak, kaleetarako % 6ko gehieneko maldak ezartzen dituzte.
- Garajera sartzeko arrapalen gehieneko malda % 16-18 da tarte zuzenetan.
- Errepideen Jarraibideko 3.1-IC Trazadura Arauak % 7ko gehieneko inklinazioa ezartzen du (ezohiko inklinazio gisa, % 10 onartzen du) 40 eta 50 km/h arteko proiektu-abiadurak dituzten errepideetan.

Adierazitakoak baino malda handiagoak, aurkeztutako errekurtsioan proposatzen direnak bezala, **arriskutsuak dira segurtasunari dagokionez, eta desagokiak erabileraren aldetik**. Hori dela eta, bide berri oso bat egin beharko litzateke, finka pribatuetatik igaroko litzatekeena, zalantzarik gabe, lehendik dagoena egokitzea baino kostu handiagokoa.

1954ko ortoargazkian, Agerre Haundi eta Agerre Zabal baserrietatik hegoalderantz abiatzen diren bideak ikusten dira. Edonola ere, ez dute Andramendirekin lotzen dituztenak hainako garrantziarik; azken horretatik joaten baitzen geltoki ingurura, Zelatatik.

28. poligono zaharra (egungo Foru Kalea) egin zenean, kale berria osatzeko egindako ezpondek eta eraikinek eten egin zituzten bide horiek. Poligono horren garapenak lotura puntu bat aurreikusi zuen, Foru Kaleko 46. eta 48. atarien parean, iparraldean mugakidea den 27. poligonoaren etorkizuneko hirigintza-garapena aurreikusiz. Poligono hori ez zen inoiz garatu, eta lurzoru urbanizaezinean dago, bai aurreko eta baita indarrean dauden Hiri Antolaketako Arauetan, baita hasieran onetsitako HAPOnan ere.

Lehen esan bezala, indarrean dauden Arau Subsidiarioen 103. artikulua, "Lurzoru urbanizaezinean pistak irekitzea" izenekoak, honako hau adierazten du: "Debekatuta daude lurzoru urbanizaezinean, baldin eta helburua behar bezala arrazoitzen ez bada edo xede hori landa ingurunea ustiatzeko jardueraren bati ez dagokionean". Bestalde, hasieran onetsitako HAPOn 124. artikulua "pistak zabaltzea" honako hau adierazten du: "Lurzoru urbanizaezinean pistak zabaltzea, bere helburuarekin eta landa ingurunean onartutako jardueraren bati xede hori dagokionean, behar bezala justifikatua izan beharko da"

Ez dago justifikatua lurzoru urbanizaezinean bide berri bat irekitzea, eta egungo arazoa konpondu ahal izango da, lehendik dagoen bidea egokituz.

Nire ustez, bide alternatibo berri hori gauzatzeak lekua eta bideragarritasun tekniko-ekonomikoa izan ditzake, soilik, 27. poligono zaharraren hirigintza-garapen hipotetiko baten barruan.

Beraz, gaur egun, **Agirre-Haundi eta Andramendi baserriak eta Foru Kalea lotzen dituen bidea egokitzea da bideragarritasun tekniko, urbanistiko eta ekonomikoko baldintzak betetzen dituen irtenbide bakarra.**"

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Bozketa eginda, aho batez onartu da Lurralde batzordeak egindako proposamena.

b. PARKEAK ETA LORATEGIAK MANTENTZEA. ADIERAZITAKO PRESTAZIOEN JARRAITUTASUN-AKORDIOA. 2021ZEBO0046

Ezagutzera eman da Lurralde batzordeko proposamena:

“Gaia: parkeak eta lorategiak mantentzea. Adierazitako zerbitzu-kontratuaren prestazioak ematen jarraitzea, aurreikusitako luzapena formalizatu gabe iritsi baita gehieneko iraupen-epea.

AURREKARIAK

I.- 2021-10-20an, GUREAK BERDEA, S.L.U.rekin aipatutako zerbitzuak emateko kontratua formalizatu zen, lau urteko iraupenarekin eta urtebeteko luzapenarekin.

II.- Epea 2025-10-20an amaitu zen, kontratua iraungi egin zen, ez zen kontratua berariaz luzatzea erabaki, baina kontratista berak ematen du oraindik zerbitzua.

III.- 2025/11/24ko datarekin zerbitzu teknikoek txostena eman dute adieraziz zerbitzua eteteak beasaingarrentzat kalteak ekarriko lituzkeela osasungarritasunean eragin negatiboa duelako, herritarrentzat arriskutsua delako, landare-ondarea hondatzen duelako, hiri-kalitatea eta udal-irudia galtzen dituelako eta zerbitzuaren etorkizuneko kostuak handitzen dituelako.

Arrazoi horiek direla eta komenigarria da zerbitzua ematen jarraitzea segurtasuna, osasungarritasuna, landare-ondarea eta Udallerriaren ingurugiro kalitatea bermatu ahal izateko.

IV.- Kontua da ea erakunde berak zerbitzuak ematen jarraitzeak beste kontratu bat dakarren edo aurrekoaren isilbidezko luzapentzat har daitekeen.

Hori dela eta udal Idazkariak espedientean jasota geratu den dagokion txostena eman du

OINARRI JURIDIKKOAK

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/17 Legeak (SPKL). 29. artikulua eta 42.3

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17,1.16) artikulua.

- 39/2025 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. 47, 1e) artikulua.

- Estatuko Abokatutza Orokorra emandako 32/97 Irizpena.

- Kanarietako Erkidegoko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen 9/2018 Ebazpena.

Ondorioz, aurrekariak eta oinarri juridikoak kontuan hartuta, Lurralde Batzordeak Osoko Bilkurari aurkeztu dio honako erabaki-proposamen hau:

Lehenengoa. Parkeak eta lorategiak mantentzeko zerbitzua ematen jarraitzea, III. aurrekarian adierazitako arrazoiengatik.

Erabakia deuseztasun-akatsa duela jakinda hartu da, ezarritako prozedura erabat alde batera utzita eman baita.

Bigarrena. Zerbitzua urrian amaitu den kontratuan jasotako baldintza berberetan ematen jarraituko da, prezioa barne, eta dagokion prozedura izapidetu ondoren administrazio-kontratua formalizatu arte emango da.

Negozio juridiko berria da, eta Udalak eta GUREAK BERDEA, SLU enpresak sinatu beharreko dokumentu batean jasoko da.

Hirugarrena. *Zerbitzu teknikoak premiatzea baldintza-agiriak egin ditzaten, ahalik eta lasterren lizitazio-espedientea onartu ahal izateko eta dagokion deialdi publikoa kontratazio-plataformaren bidez egiteko.*

Laugarrena. *GUREAK BERDEA, SLUri 2025-10-21etik akordio hau gauzatzeko dokumentua formalizatu arte emandako zerbitzuak ordaintzea, Udala bidegabeki aberastea saihesteko."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritziz hauek azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Nosotros votaremos en contra. Entendemos el perjuicio que puede traer la suspensión del servicio, tal y como indica el informe técnico, pero estamos en contra del procedimiento que estamos llevando a cabo. Nos crea serias dudas porque incurre en un vicio de nulidad. Hay que pagar el servicio prestado pero que esto siga así, no."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Kudeaketa desegoki baten ondorioz da, hartzen ari garen erabakia. Idazkariaren txostenean ere nahiko garbi azaltzen da. Gu abstenitu egingo gara, alde batetik ulertzen dugulako zerbitzua eteteak ekarriko lukeen endredoa herritarrentzat eta beste aldetik kontuan izanda langile-kolektiboaren berezitasuna. Zerbitzua beharrezkoa da baina ez zaigu ondo iruditzen udal batean horrelako gertaera ematea. Beraz, abstenitu egingo gara."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Batzordean argi eta luze azaldu zen. Azkenean Adurrek arduradun politiko gisa hitza hartu zuen eta azaldu zuen gertatutakoa zer izan den. Aukera guztietan, denentzat desegokia bada ere, onena hau da kontuan izanda interes orokorra zein den. Teknikariak jarri dira lanean lizitazioa martxan jartzeko. Adurreko hitza hartu ostean, nik uste dut garbi geratu zen, teknikoak ere hala esan zutelako, beraiei gertatutako hanka sartze bat izan da. Ez da ohikoa baina tartean horrelakoak ere gertatzen dira. Zerbitzuarekin jarraitzea interesatzen zaigu, bestela herriarentzat kalte handiak sortuko liratekeelako eta lehenbailehen lizitazioa martxan jartzea."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioa: 6 (Beasaingo EH Bildu, Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da Lurralde batzordeko proposamena.

c.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK: 2026. URTERAKO AUZO-TAXI PROGRAMARAKO DIRULAGUNTZAK.2025ZEBO0095

Lurralde batzordeak Udaltzara Osoari proposatu dio, ondorengo oinarriak onartzea:

"2026. URTERAKO AUZO-TAXI PROGRAMARAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK.

ZIOEN AZALPENA

Azken urteetan higikortasun esparruan gizartea jasaten ari den etengabeko eraldaketaren ondorioz, Beasaingo Udalak somatu du landa-eremu edo landa-auzoetan bizi direnek herrigunera etortzeko zailtasunak dituztela.

Alde horretatik, eta jasangarritasunaren eta irisgarritasunaren printzipioak kontuan hartuta, helburua da Beasaingo herrigunea landa-eremuekin lotzea "auzo-taxi" programaren bidez, landa-auzoetako bizilagunei programa hori eskainiz eta, aldi berean, programaren funtzionamenduarekin batera oinarri hauetan arautzen diren udal-laguntzen onuradun izanez.

Zerbitzua koordinatzeko helburuarekin eta modu ezin hobean funtziona dezan, oinarri hauek onartzearekin batera, Udalak hitzarmen bat sinatuko du "auto-taxiaren" programari atxikitzeko borondatea azaldu duten Beasaingo auto-taxiaren udal lizentziaren titular-taxilariekin,

2024an helburu bererako oinarriak onartu eta 2025ean jarraitu ondoren, aipatutako aldian emandako «autotaxi-txartelen» kopurua 41ekoa izan da.

Laguntza hauek arautzen dituen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,8) eta 16) artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten dira, garapen iraunkorra eta biztanle guneetarako sarbidea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).
- Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (7. helburu estrategikoa: udalerrri osasungarri, iraunkor eta irisgarri bat sortzen laguntzea. 7.4 lerroa: Irisgarritasuna sustatzea. Autotaxi zerbitzua).

1.- DIRULAGUNTZAREN XEDEA.

Oinarri hauen xedea "auzo-taxi" programa arautzea da, bai eta garraio publikoko zerbitzu erregularrik ez duten landa-auzoetan bizi diren pertsonen udalerrian taxia erabiltzeko dirulaguntzak ematea ere.

Hauek dira landa-auzoak:

- BEASAINMENDI
- ARRIARAN
- GARIN
- ASTIGARRETA
- MATXINBENTA
- ALTAMIRA
- SALBATORE
- GUDUGARRETA

Oinarrien hauetarako, Garingo Etxeberri baserria, Astigarreta kontsideratuko da.

"Auzo-taxi" zerbitzua ezingo da inolaz ere, eskola-garraio zerbitzua emateko erabili.

2.- AURREKONTUA

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak finantzatzeko 2026rako aurrekontu-proiektua aurreikusitako kreditua 6.000,00 €-koa da.

Aurretiazko izapidetzea da, eta 887/2006 RGSren 56. Artikuluan jasota, deialdiaren ebazpena oinarri hauek onartu eta argitaratu eta hurrengo ekitaldian emango baita.

Adierazitako zenbatekoa zenbatetsia da, eta, beraz, dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da, dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean.

Aurrekontu-partidan dagoen kreditua agortuz gero, Lurralde Batzordeak zerbitzuaren balorazioa egingo du, eta, hala badagokio, handitzea proposatuko du. Proposamena organo eskudunak onartu beharko du, aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik, baina horrek ez du beste deialdirik eragingo.

3.- ONURADUNAK.

Eskaera egin dezakete eta onuradun izan daitezke jarraian zehazten diren baldintzak eskaera aurkeztzen duten egunean betetzen dituzten pertsona fisikoak:

- a) Beasainen erroldatuta 1. Oinarrian agertzen diren auzo batean.
- b) 12 urtetik gora izatea (12-18 urte bitarteko onuradunek, gurasoen edo tutoreen baimena beharko dute).
- c) 38/2003 Legeak (Diru-laguntzen Lege orokorrak) 13. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako batean ere sartuta ez egotea.
- d) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen egiaztagiriak eta Beasaingo udalaren zorduna ez izatea.

4.- ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen eskabideak aurkezteko epea. Irekita egongo da partidaren funtsak agortu arte, edo, gehienez 2026. urtean.

Modua:

Aurkeztuko den eskabide-orria II. eranskinean agertzen dena izango da berau Beasaingo Udaleko Herritarren arreta zerbitzuan (i-Gunean) aurkeztu beharko da edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako bideen bitartez.

Eskaera egiteko modu elektronikoa aukeratuz gero, Beasaingo Udalaren web gunean dagoen egoitza elektronikoa aurkeztuko dira: www.beasain.eus eta hemen "dirulaguntzak", atalean.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskabide-orria eskatzaileak edo ordezkariak behar den moduan beteta eta sinatuta aurkeztuko da, honako agiri hauekin batera:

- a) Eskatzailearen NA. Eskaera beste pertsona baten izenean egiten bada, tramiteak beste baten ordezkari gisa egiteko inprimakia behar bezala beteta aurkeztu beharko da gainontzeko dokumentuekin batera.
- b) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen aitortzea. Xehetasun hau Udalak egiaztatuko du 5. Oinarriak azaltzen den moduan beti ere dirulaguntzen eskatzailea aurka azaltzen ez bada. Kasu honetan berak aurkeztu beharko ditu horien egiaztagiriak.
- c) Erantzukizunpeko adierazpena, I. eranskineko ereduak erabilita, non adieraziko den eskatzailea ez dagoela sartuta 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Orokorrak) 13. artikuluan aurreikusitako debekuetako batean ere.
- d) Zinpeko aitortzea, non jasoko den xede bera finantzatzeko beste entitate edo erakunde batzuei eskatutako edo eskatzea aurreikusi diren dirulaguntzak zeintzuk diren, honako hauek zehaztuta: erakundearen izena eta jasotako edo eskatutako dirulaguntza. Honetarako, I. eranskineko ereduak erabiliko da.

Aurkeztutako eskaera eta dokumentazioa aztertzea:

Lurralde arlopean dauden udal zerbitzuek ofizioz egiaztatuko dute eskatzailea Biztanleen Erroldan inskribatuta dagoen eta baita ere Udal Ogasunarekin eguneratuta egotea.

Aurkeztutako eskabide-orrian edo dokumentazioan zerbait falta bada edo zuzendu daitekeen akatsen bat badago jakinarazpena bidaliko zaio eskatzaileari 10 (hamar) egun baliodun emanek dokumentazioa osatzeko eta jakinaraziko zaio zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela.

Udalak, dirulaguntza eman, mantendu edo ezeztatu behar den erabakitzeke, eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioaz gain beste agiri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

5.- DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeke eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundia: Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

6.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagunduko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten egindako bidaiak:

- Udalerrri barruan egindako bidaiak (landa-auzoetako etxebizitzatik erdigunera baita alderantzizko norabidean ere).
- Beasaingo auto-taxiaren udal-lizentziaren titularrak diren taxistekin eta Beasaingo Udalarekin zioen azalpenean aipatzen den hitzarmena sinatu dutenekin egindako joan-etorriak. Horretarako, dirulaguntzaren eskubidea onartzen denean emango den txartel identifikagarrian deia egiteko edota whatsapp-a bidaltzeko telefono zenbakia jasoko da.
- Bidaiak 2026. Urte barruan egitea.
- Bidaiak honako egun eta orduen barruan egitea (abuztuan ezik):
Astelehenetik larunbatera: 07:30etik-20:30era.

Igande eta jai egunetan egindako bidaiak ez dira diruz lagunduko, ezta abuztuan egindako bidaiak ere.

7.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA TARIFAK

Dirulaguntzaren zenbatekoa izango da erabiltzaileak egin beharreko konturako ordainketaren eta bidaiaren benetako kostuaren arteko aldea, Udalbatza Osoak 2025-10-30ean on iritzia emandako eta Euskadiko Prezioen Batzordera bidalitako 2026rako tarifen arabera.

Erdiguneko geltokiak Barrendain plazan edo Osasun Zentruan izan ahalko dira.

8.- ERABILTZAILEEK ORDAINDU BEHARREKO KOPURUA

Astelehen, asteazken eta ostegunetan:

T1: Salbatore, Beasainmendi, Altamira, Gudugarreta eta Arriaran:

Bidaiaren gehieneko kostua 3,00€tako izango da. Hau da, gidari bakarra joanez gero 3,00€ ordainduko ditu.

2 bidaiari joanez gero 1,50€

3 bidaiari joanez gero 1,00€

4 bidaiari joanez gero 0,75€

T2: Garin eta Astigarreta

Bidaiaren gehieneko kostua 6,00€tako izango da. Hau da, gidari bakarra joanez gero 6,00€ ordainduko ditu.

2 bidaiari joanez gero 3,00€

3 bidaiari joanez gero 2,00€

4 bidaiari joanez gero 1,50€

T3: Matxinbenta

Bidaiaren gehieneko kostua 9,00€tako izango da. Hau da, gidari bakarra joanez gero 9,00€ ordainduko ditu.

2 bidaiari joanez gero 4,50€

3 bidaiari joanez gero 3,00€

4 bidaiari joanez gero 2,25€

Larunbatetan:

T1+: Salbatore, Beasainmendi, Altamira, Gudugarreta eta Arriaran:

Bidaiaren gehieneko kostua 4,00€tako izango da. Hau da, gidari bakarra joanez gero 4,00€ ordainduko ditu.

2 bidaiari joanez gero 2,00€

3 bidaiari joanez gero 1,35€

4 bidaiari joanez gero 1,00€

T2+: Garin eta Astigarreta

Bidaiaren gehieneko kostua 9,00€tako izango da. Hau da, gidari bakarra joanez gero 9,00€ ordainduko ditu.

2 bidaiari joanez gero 4,50€

3 bidaiari joanez gero 3,00€

4 bidaiari joanez gero 2,25€

T3+: Matxinbenta

Bidaiaren gehieneko kostua 14,00€tako izango da. Hau da, gidari bakarra joanez gero 14,00€ ordainduko ditu.

2 bidaiari joanez gero 7,00€

3 bidaiari joanez gero 4,65€

4 bidaiari joanez gero 3,50€

Zerbitzua ahalik eta jasagarriena izatea da helburua eta banakako bidaiak saihestea lehenetsi behar da.

Joan-etorria egiten denean, joan eta etorri bakoitza bidaia bat izango da.

Oinarri honetan aurreikusitako onuradunei dagokien dirulaguntza, aurreikuspen-ekonomikoa egotearen baitan geratzen da.

9.- INSTRUKZIOA ETA ERABAKIA.

Instrukzioa:

Lurralde arlopean dauden udal zerbitzuek aztertuko dute eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa, egiaztatu ahal izateko baldintzak betetzen diren dirulaguntza emateko.

Ebazpena:

Alkateari dagokio aurkeztutako eskaerak ebaztea.

Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko epea gehienez ere bi hilabetekoa izango da. Gehieneko epe hori igaro bada erabakiaren gaineko bidezko jakinarazpenik gabe edo txartelik eman gabe, interesdunek ulertu ahal izango dute eskaera atzera bota dela administrazioaren isil bidez.

"Auzo-taxi" txartela:

Baldintzak betetzen badira, aldeko ebazpena eta "Auzo-taxi txartela" emango da eta eskatzaileari helaraziko zaio.

Onuradunen zerrenda egingo da, onuradunen datuak jasotzen duena.

"Auzo-taxi txartela" pertsonala da eta ezin da besterendu, titularrak baino ezingo du erabili. Txartela behar den moduan ez erabiltzea dirulaguntza baliogabetzeko arrazoia izango da.

Adingabeak (12-18 urte bitartekoak) bakarrik bidaiaitu ahal izateko, txartel pertsonala izan behar dute eta guraso edo tutoreek horretarako emandako baimena.

Esandako moduan baimendutako adingabeek euren gurasoen edo tutoreen erantzukizunpean bidaiaituko dute ondorio guztiekin.

Kontrola:

Lurralde Batzordeari dagokio dirulaguntza hauen kontrola. Batzorde honek, urtero emandako auto-taxien txartelen" kopuruaren berri emango du, baita taxilarien eta erabiltzaileen inpresioen berri ere.

10.- AUZO-TAXI PROGRAMAREN KUDEAKETA

Auzo-taxi programa, Beasaingo Udalarekin sinatutako hitzarmenean azaltzen diren taxi-gidarien lankidetzarekin kudeatuko da, hitzarmenaren edukiaren arabera eta oinarri hauetan jasotako berezitasunei kalterik egin gabe.

"Auzo-taxiaren txartela" eskuratu ondoren, bidaia egiteko interesa duen pertsonak 943 88 03 67 telefonora deitu beharko du edota zuzenean hitzarmenera atxikitu den taxilari batekin kontaktuan jarri.

Egin beharreko bidaia goizeko 11:00ak baino lehenago izan ezker, bezperan deitu beharko da gaueko 21:00ak baino lehenago eta gainontzeko kasuetan eskaera bi (2) ordu lehenago egitea nahiko izango da.

"Auzo-taxiaren txartela" dutenek mezu baten bidez, egingo diren joan etorrien berri jasoko dute, bidai berean ahalik eta bidaiari gehien eramateko aukera zabaltzearen.

Astearte eta ostiraletan, azoka egunak direlako, zerbitzua doakoa izango da auzoetako bizilagunentzat.

Bidaia hasi aurretik, taxilariak egiaztatu egin beharko du erabiltzaileak eta honek eskatutako zerbitzuak "Auzo-taxi" programaren dirulaguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituela, eta horretarako honako pauso hauek eman beharko ditu (erabiltzaileak bete beharko dituenak dirulaguntza jaso ahal izateko):

- "Auzo-taxi txartela":

Erabiltzaileari txartel hori eskatuko dio, eta indarrean dagoela egiaztatu beharko du.

- *Nortasuna egiaztatzea:*

Egiaztatu beharko du zerbitzua eskatu duen pertsona "auzo-taxi txartelak" esaten duen bera dela.

- *Ibilbidea:*

Egiaztatuko du erabiltzaileak eskatutako ibilbidea hiri-eremuan eta "auzo-taxi" programan aurreikusitako eremuaren barruan dagoela.

Zehaztutako jardun guztiak egin ondoren, taxilariak egindako ibilbide bakoitzeko formulario bat (II. Eranskina) bete beharko du, taxi-gidariak eta erabiltzaileak sinatuko dutena (hiru ale).

Dokumentu horren bidez, erabiltzaileak dirulaguntza kobratzeko eskubideak lagatzen dizkio taxilariari. Eskubide horien zenbatekoa erabiltzaileak egindako "konturako ordainketaren" eta fakturatutako bidaiaren benetako kostuaren arteko aldea izango da.

Bidaia amaitzean, erabiltzaileak 7. oinarrian ezarritakoaren arabera dagokion zenbatekoa ordainduko dio taxilariari, "konturako ordainketa" kontzeptupean.

Jarraian, taxilariak aurreko puntuan aipatutako formularioaren ale bat emango dio erabiltzaileari, eta bidaiaren zenbateko osoaren faktura (BEZa barne), organo eskudunak onartutako tarifaren arabera.

Zerbitzuaren onuradunek, taxi-gidariak emandako bidaien fakturak eta agiriak gorde egin beharko ditu, gutxienez urte betez. Izan ere, edozein momentutan Udaletik eska diezazkieke egin beharreko egiaztapenak egiteko.

Taxilaria bidaia bakoitzean auzotar bat baino gehiago jasotzen ahaleginduko da, efizientzia eta jasagarritasuna bermatzeko.

Bidaia berean erabiltzaile bat baino gehiago badoa, taxilariak bakoitzari dagokion proportzioa kobratuko dio, eta dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, bidaiaren tarifa orokorrari bidaia bereko erabiltzaile guztien artean ordaindutako zenbateko osoa kenduko zaio.

11.- ZURIKETA ETA DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Zuriketa:

Horretarako, hilerio, "Auzo-taxi" programan sartuta dauden taxilariak (hitzarmena sinatu dutenek), egindako bidaien egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte, honako agiri hauekin:

- *Erabiltzaileari emandako bidaiaren zenbateko osoaren fakturaren kopia.*
- *Formularioaren alea (II. eranskina), taxilariak eta erabiltzaileak sinatua.*

Dirulaguntza justifikatzerakoan zalantza edo intzidentziaren bat sortuko balitz, bai zenbatekoari buruz, bai dirulaguntzarik dagokion ala ez zehazteari buruz, Udalak taxi-gidariari egoera argitzeko dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio.

Dirulaguntzaren ordainketa:

Onuradunei dagokien dirulaguntza taxilariari ordainduko zaio, hark kobratzeko eskubidea laga baitio, 9. oinarrian adierazitako agiria sinatzerakoan.

Lurralde-arloko udal-zerbitzuek egiaztagiriak baliozkoak direla egiaztatu ondoren, Alkateak, horretarako emandako ebazpenaren bidez, justifikazioaren hurrengo hilabeteen ordainduko den dirulaguntza ordaintzeko aginduko du.

Zerbitzua ematean erabiltzailearen eta taxilariaren artean desadostasunen bat egon bada "auzo-taxi" programara atxikitzeko eskubideari buruz, eta kostuaren ordainketa osoa (konturako ordainketarik gabe) eskatu bazaio, taxilariak, aldez aurretik ordainduta, dagokion faktura emango dio, erabiltzaileak

Udalean aurkeztu dezan, udaleko zerbitzu teknikoek dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen diren ala ez egiazta dezaten. Erantzuna baiezkoa bada, dirulaguntza zuzenean ordainduko zaio erabiltzaileari.

Alkateak dagokion ebazpena emango du eta dirulaguntza aurreko kasuan bezalako epean ordainduko da.

Udalak, bere datuetan oinarrituta, aldiro, onuradunei Auzo-taxi programaren barruan beraien izenean kontabilizatu diren bidaien eta zenbatekoen gaineko datuen informazioa bidaliko die.

Informazio honen helburua da onuradun guztiei egindako bidaien eta diru-laguntzaren gaineko jarraipena eta kontrola ahalbidetzea.

12.- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN.

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da helburu bera lortzeko jasotako beste edozein dirulaguntzarekin.

Hala ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan, beste dirulaguntza batzuekin batera zein bakarrik, diruz lagunduko den zerbitzuaren kostua baino handiagoa.

13.- DIRULAGUNTZAREN ALDAKETA.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezake.

14.- ITZULKETA

Itzulketa bidezkoa izango da justifikazioa okerra edo nahikoa ez denean. Zati bat betetzen bada, itzulketa ez-betetzearen zenbatekora mugatuko da. Berdin jokatu da, baldin eta, justifikazio-dokumentazioaren ondorioz, gain finantzaketarik dagoela ondorioztatzen bada.

Aurrekoaren kalterik gabe, itzulpena egingo da honako hauek xedatzen duten moduan: Dirulaguntzen Lege Orokorra, hori garatzen duen Erregelamendua, Udal Aurrekontu Araua eta aplikagarri den gainerako araudia.

15.- DATUEN BABESA

Udalak eta zerbitzua ematen duten taxilariak abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betez tratatuko dituzte erabiltzaile eskatzaileen datuak.

16.- ERREKURTSOAK

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenba tzen bi kasuetan."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu dira oinarriak.

d.- UDALAZ GAINDIKO ADMINISTRAZIOEK ESKU HARTZEN DUTEN OBRAK EGITEKO UDAL-EKARPENAK: GARINGO SANEAMENDUA EGITEKO OBREI BIRUZKO LIKIDAZIOA. 2024HIBO0054

Ondorengoa ezagutzera eman da:

Obra amaierako ziurtagiriaren zenbatekoa 84.373,84 eurokoa izan da, gehi 17.718,51 euro

BEZagatik, hau da, 102.092,35 eurokoa.

Hortaz, ziurtagiriko kapituluaren zenbatekoa kontuan hartuta, hurrengo taulan zehazten da gastua sustatzaile artean banatzeko modua, eurotan:

	Oinarria	BEZ	Guztira
Amaierako-ziurtagiria	84.373,84 €	17.718,50 €	102.092,35 €
Beasaingo Udala	47.835,60 €	10.045,48 €	57.881,08 €
Ur-Kontsortzioa	18.269,12 €	3.836,52 €	22.105,64 €
GFA	18.269,12 €	3.836,52 €	22.105,64 €

Azken kopuru horiekin obraren guztizko balorazioa 596.381,66 €-koa izan da. Sustatzaile bakoitzak ordaindu beharrekoa hurrengo kopuruak izan dira:

- Beasaingo Udalak: 295.370,48 €
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioak: 150.505,59 €
- Gipuzkoako Foru Aldundiak: 150.505,59 €

Bozketa egin da, aho batez onartu da likidazioaren ondorioz, udalari tokatzen zaiona ordaintzea.

d.- OBRA-ZIURTAGIRIAK: SAN INAZIO ETA ESTEBAN LASA KALEAK BERRURBANIZATZEA. 2023PROB0014

- San Inazio eta Esteban Lasa kaleak berrurbanizatzeari buruzko obraren, 12. ziurtagiria.
- Aipatutako kontratuaren aldaketatik ondorioztatutako obraren, 1. Ziurtagiria.

Aho batez onartu dira, "San Inazio eta Esteban Lasa kaleak berrurbanizatzeko proiektuko obrari buruzko" 12. obra-ziurtagiria, 400.480,13 €koa (BEZ barne) eta kontratu-aldaketari dagokion 1. obra-ziurtagiria 158.695,35 €koa (BEZ barne).

5.- BERRI EMATEA:

Ezagutzera eman dira ondorengo Ebazpenen-zerrenda:

- 2025eko urriaren 27tik azaroaren 30era emandako Ebazpenak.
- 2025eko urriaren 27tik azaroaren 30era emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderan atalean honelakoak aurkeztu dira:

MOZIOAK AURKEZTU ETA TRATATZEA

Aritz Corsitto Agirre jaunak (Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde) hitza hartu du eta ondorengo adierazi du: "Alkatea anderea, legealdi honetan aurrekarik gabeko gertakari baten berri eman nahi genuke. Lehenaldiz, gure taldeak aurkeztutako eta osoko bilkuran eztabaidatu zitezkeen bi mozio, izapidera onartu gabe utzi dira. Orain arte, alkatetzak aplikatu duen irizpideak izaera askotako ekimenak ahalbidetu ditu eta guztiak ere eztabaidatu

eta bozkatu dira, horrek dakartzan adostasun eta desadostasun politiko guztiekin. Hala ere, oraingoan eztabaida ukatu zaigu formaltasunetan oinarritutako arrazoietan babestuta.

Arrazoi bide horrek ordea, ez du koherentziarik aurrez izapidetu diren beste mozio batzuekin alderatzen badugu. Hauek ere jarrera politiko hutsak izan direlako, edo udalaren eskumen eskusibotik kanpoko gaietan beste erakundeei eskuhartzeko eskatzen zietelako.

Gogorarazi nahi dugu, adibidez, gutxieneko pentsioei buruzko mozioak, hizkuntza politikaren ingurukoak, CAF enpresarekin lotutako nazioarteko gatazkari buruzkoak edo garraio publiko bestelako zerbitzuen ingurukoak onartu eta eztabaidatu izan direla.

Ezin dugu susmoa saihestu, mozioen gaineko kalifikazio ahalmena, modu selektibo eta arbitrarioan erabiltzen dela dirudi azken erabaki honekin. Eta bereziki larria da, zure alderdia gehiengo absolutu zabal baten jabe dela eta beraz, gustuko ez dituen proposamen guztiak, bozketa hutsa erabiliz eta zilegitasun demokratiko osoz baztertzeko gai dela kontuan hartuta.

Eztabaida bera eragozteak Alkate anderea, neurriz kanpo mugatzen du gure partaidetza politikorako funtsezko eskubidea. Konstituzioko 23. artikuluan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen lehenengo 22. eta 73. artikuluetan eta Errege Dekretuz onartutako ROFea aitortutako eskubidea eta Arartekoaren nahiz Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak berretsia, zeinak osoko bilkura, legezko borroka politikarako eta gizartearen oihartzun gisa ulertzen baitu.

Udalaren ordezkari gorenaren izanik, legeak ardura berezia ezartzen dizu prozesu demokratikoaren garbitasuna eta aniztasuna bermatzeko, baina inolaz ere ez dizu ematen udalaren eskumenak, iritzi pertsonalen edo unean-uneko interes politikoaren arabera interpretatzeko boterea. Udal demokraziak, errespetua eta begirunea eskatzen dizkie osoko bilkurako ahots guztiei eta oposizioak alkatetzak neutraltasunez eta objektibotasunez jardutea merezi du.

Horregatik, guztiagatik, aurrerantzean, legealdi honetan orain arte oposizioari inoiz eragotzi ez zaion zilegizko eztabaidako eskubidea berriz ez ukatzeko eskatzen dugu eta horren bidez, praktika demokratiko egokiak eta Beasaingo herritarrik merezi dute erakundeen arteko errespetua berrizartzea.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bueno, Aritz, ez dakit nola aipatu. Atzo elkartu ginen, beste kontu bat hitz egiteko eta honi buruz, noski, txintik ere ez zenuen esan beti ere oportunismoa osoko bilkura honetan esatea delako zure ustez. Astelehenean erregistratutako eta kasu honetan udalbatza honetan ez aztertzea edo tratatzea erabakitako mozio horiek jakin beharko zenuke beharbada zergatik esan diren ezetz. Ez mozio izaera dutelako. Zuk dakizun moduan edo jakin beharko zenuke, hau ez da Batzar Nagusitan edo Legebiltzarrean gertatzen dena, hau da, mozio edo ebazpen proposamen bitartez exekutiboari eskaerak egiten zaizkiola. Hemen guztiok, udala osatzen dugu eta proposamenak egiteko beste modu batzuk daude. Gehienetan gure eskumenekoak direnean. Orduan horietako eskaera batek eskatzen zuen Palestinaren banderak erostea. Hori zuk proposamen bezala egin behar diguzu oposizioko talde zera heinean.

N1an pantaila akustikoak jartzea eskatzen duzun bezala. N1an 80 km/h-tako, abiadura murriztea eskatzen den bezala. Dagokizuna da zuk guri eskatzea eta ez mozio bitartez. Zuk hor egiten dituzun eskaerak, mozio bitartez egiten dituzunak, Foru Aldundira bideratzen baditugu, mozio bat iritsiko da Foru Aldundira eta ez dute kasurik egingo. Orduan, eskatzen dizudana da oportunismo hau alde batera utzi eta benetan, lanean hastea. Lanerako gaude, ateak irekita dauzkagu, zuen ahotsak entzuteko prest gaude, baina nik uste dut zuen funtzionatzeko modutan pentsatu egin beharko zenutela, nola egin behar dituzuen eta benetan

oposizio eraikitzaile bat egin nahi baduzue, eta herritarren alde lan egin behar baduzue, lehenengo udal funtzionamenduaren arauak zeintzuk diren ezagutu.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde): “Nik uste dut guk aurkeztu ditugun bi mozio horiek aurretik onartu diren beste mozio batzuen, nahiko antzeko direla gaietan, eta beste mozioak onartu dira. Beraz orain ez onartzean arrazoia ez dut ulertzen. Ez dakit justifikazio tekniko bat daukan. Hori ziurtatzeko eta idazkaritzak eta gardentasunak errespetuz, eskatuko dugu txosten tekniko bat idatzia eta sinatua legezko arrazoi zehatzak zein diren jakiteko. Horrela saihestuko ditugu nahasmen hauek izatea.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Esan bezala mozio bat denboran edo data zuzenean aurkezteak ez du esan nahi Plenora ekarri behar denik. Kasu honetan Plenora ez ekartzeko arrazoia ez da izan tratatu nahi ez dugun kontu bat. Pentsatzen dugu formula ez dela egokia, ez dela mozio bat aurkezteko kontu bat, baizik eta oposizio eta gobernuaren arteko elkarlan bidea zabaltzeko modu bat. Zuen eskaera aztertzeke ez da esakera egin behar mozio bitartez.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde): “Gauza bera errepikatuko dut baina, azken finean beste mozioekin zein alde dagoen ez didazu esplikitzen. Ez dago irizpide tekniko bat.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Palestinan kasuan Beasaingo udalari eskatzen diozue palestinako banderak erosteko. Mozio bitartez Beasaingo udalari ezin diozue ezer eskatu!. Zuek zinegotziak zarete, Beasaingo udaleko zinegotziak zarete!. Orduan, eskaera hori ez da mozio baten bitartez egiten. Eskaera erregistrotik sartzen da edo nahi duzuen bezala, baina ez dauka mozio forma eskaera horrek. Berdin, kasu honetan gehienak dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegitura departamentuari eskatzea. Hor batzuetan, eskumen kontu batzuk izaten dira, baina emaitza positiboa izate aldera, eraginkorragoa izango da mozio baten bitartez hemen aurkeztea baino landu eta lanketa horren ondorioak zeintzuk diren ikusita, Azpiegitura departamentuari dagokion eskaera egitea. Ez mozio baten bitartez. Mozioak Foru Aldundiari bidaltzen zaio, baina hori baino eraginkorragoa da landu eta bide zuzenetatik bidaltzea dagokien tokira.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde): “Iritzi ezberdintasuna izango da.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Beharbada bai. horregatik gaude hemen.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde): “Noski”.

TRAFIKO-ALDAKETA

Angel Redondo Fernandez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Se ha comentado que las obras de renovación de las calles Esteba Lasa y San Inazio están prácticamente terminadas. Hemos visto que se han pintado los pasos de cebra que hay en el cruce de La Salle con Esteban Lasa y sin embargo los cruces con Lorategi y la zona de los contenedores está sin pintar. Se ha abierto la calle al tráfico, pero al no estar pintados los pasos de cebra, resulta peligroso. Queríamos información al respecto.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Seinalizazio bertikala jarrita dago. Azken egunetan badakigu zein eguraldi izan dugun. Ezinbestekoa egin da udaltzaingoaren onespenearekin eta eguraldi ona dagoenean osatuko da.”

Angel Redondo Fernandez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “El otro día a la tarde se pintaron las subidas y no entiendo por qué no se pintaron también los pasos de cebra.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Euriagatik. Zebra pintatzeko garaian lehenetsi egin dira, jakinda ditugula leiho konkretu batzuk lanak egiteko garaian lehenetsi egin dira. Ez dago beste inolako borondate edo asmo ezkuterik.”

Angel Redondo Fernandez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Trasladar el ruego de que, por favor, cuanto antes se realice para evitar algún atropello.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Badirudi datozen egunetan eguraldi ona datorrela eta datorren astean amaituko da.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Ante las modificaciones de tráfico que se han efectuado, subida de Erauskin, Andre Mari, en la web está colocada la información pero no sé si tenéis conocimiento de que al faltar las señalizaciones verticales hay confusión en la ciudadanía y hay quien se ha metido en dirección contraria, con el peligro que ello acarrea.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Ireki badugu da udaltzaingoek kontsideratzen dutelako seinalizazioa jarrita dagoela, baina esan dudana bezala datozen egunetan jarrita egongo da. Horrelako aldaketak ematen direnean ohiko da lehenengo egunetan nahasmen puntua egotea. Horregatik indartu da udaltzainen presentzia bidegurutzetan.”

Eta tratatzeko besterik ezean bilera arratsaldeko hemezortzi eta hogeita hamabostetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut